



Ingurumen jardunaldiak

Basoen kudeaketa ereduak, Aralarko ondarea, Antropozenoa eta gaueko biodibertsitatea hausnarketarako gai, otsailaren 11tik 28ra



» OÑATIKO PENTSIODUNAK

“Batasunean eta mobilizazioan dago gure indarra”

Beste herri askotakoek bezalaxe, Oñatiko pentsiodunek ere urtebete daramate kalera irteten, pentsio duinak aldarrikatzeko. Aste honetan bertan ere ehun bat lagun batu dira, eguraldi hotzari aurre eginez. Oso positiboki baloratu dute urtebete honetako mobilizazioei esker lortutakoa, baina aldarrikapen nagusitik (1.080€-ko gutxieneko pentsioa) urruti daude oraindik, eta borrokan jarraitzeko asmo sendoa berretsi dute. “Etxean geratuta ez dugu ezer lortuko”.

2018an pentsioak soilik %0,25 igoko zirela esanez Madrilgo gobernuak jubilatuei bidalitako gutunak piztu zuen sua orain dela urtebete. Gutunak bueltatu eta beraien haserrea eta sumina kalera ateratzea erabaki zuten milaka pentsiodunek herriz herri eta, tarteka, mobilizazio jende-

tsuak eginez hiriburuetan.

Oñatin astelehenero batzen dira udaletxe aurrean, eguerdiko 12etan, Duintasuna, Lagun Leku eta Pake Leku elkarteek deituta, eta oso positiboki baloratu dute urtebete honetako ibilbidea eta lortutakoa: 2018ko pentsioetan %1,7ko igoera eta %1,6koa

«Urtebete honetako balorazioa oso positiboa da, baina helburutik urruti gaude oraindik eta borrokan jarraitu beharra dago; etxean geratuta ez dugu ezer lortuko»

Oñatiko pentsiodunak

2019an; gutxieneko pentsioak %3 haztea bi urtetan; alargunen pentsioen oinarri arautzailea %52tik %60ra igotzea; pentsioak kalkulatzeko iraunkortasun faktorea 2023ra arte ez aplikatzea...

Baina helburutik (1.080€-ko gutxieneko pentsioa) oraindik urruti daudela gogorarazten dute. “Garbi geratu behar da, gainera, 1.080ko kopurua ez dela gure asmakizuna, Europako Gutun Sozialak gomendatzen duena baizik, eta adierazpen hori sinatu dute bai Espainiako eta baita Euskadiko gobernuak ere”.

Gutxieneko pentsioaz gain,

Etxe-Aundi
Hotela · Jubileoa 22
Tel. 943 78 19 56
www.etxeaundi.com



Lortutakoak

- ▶ 2018ko pentsioetan %1,7ko igoera eta %1,6koa 2019an.
- ▶ Gutxieneko pentsioak %3 haztea bi urtetan.
- ▶ Alargunen pentsioen oinarri arautzailea %52tik %60ra igotzea.
- ▶ Pentsioak kalkulatzeko Iraunkortasun Faktorea 2023ra arte ez aplikatzea.
- ▶ Pentsioen gaia agenda politikoa jartzea

Aldarrikapen nagusiak

- ▶ 1.080€-ko gutxieneko pentsioa, Europako Gutun Sozialaren gomendioari jarraituz.
- ▶ Pentsioak KPI/IPCaren arabera eguneratzea.
- ▶ Iraunkortasun Faktorea ezabatzea.
- ▶ Gizon eta emakumeen pentsioen arteko arrakala (emakumezkoena %41 apalagoa da) gainditzea.
- ▶ Eskabide horiek guztiak legez bermatzea.

pentsioak bizitza-garestitzearen (KPI/IPC) arabera eguneratzea, iraunkortasun faktorea ezabatzea, gizon eta emakumeen pentsioen arteko arrakala gainditzea (bataz beste %41 apalagoa da emakumezkoena gizonazkoena baino) eta horiek denak legez bermatzea exijitzen dute.

Pentsioen euskal sistema publikoaren aldeko aldarrikapena ere egiten dute, "seguru gaudelako diru publikoa hobeto kudeatuko dugula hemen, Madrilen baino". Berriki jakin dugu, hala ere, EAEko Estatutuan jasota baina transferitu gabe dauden eskumenak negoziatzeko Espainiako gobernuak aurkeztu berri duen egutegian ez dela Gizarte Segurantzarena agertzen.

MOBILIZAZIOEI EUTSI

Toledoko Itunean biltzen diren eragileek datozen asteetan iragarriko omen dituzte pentsioen sistema bideragarri egiteko go-

«1.080 euroko gutxieneko pentsioa ez da gure asmakizuna, Europako Gutun Sozialak egiten duen gomendioa baizik»

«Ideologia ezberdinetako pertsonak pankarta baten atzean batzea lortu dugu, eta batasun horretan dago gure indarra»

Oñatiko pentsiodunak

mendioak, baina pentsiodunek ez daukate itxaropen handirik. "Toledoko Itunean hartu izan diren erabaki eta neurriak, normalean, pentsiodunen bizkar hartu izan dira. Guk itxaropen handiagoa dugu mobilizazioan".

Ildo horretan, pentsiodunen artean lortu duten batasuna go-raipatzen dute. "Ideologia eta tradizio politiko ezberdinetako pertsonak batu gara pankarta baten atzean. Siglak alde batera utzita, 1.080€-ko gutxieneko pentsioaren aldarrikapenarekin bat egin dugu, eta batasun horretan dago gure indarra".

Maiatzean hauteskundeak izango direla kontuan hartuz, mobilizazioei eutsi ez ezik, areagotzeko asmoa ere aurreratu dute. "Tamalez, botoak galtzeko arriskua dagoenean hasten dira mugitzen politikariak. Borondate politiko kontua da, azken batean, eta, beraz, kalera irteten eta presioa egiten jarraitu be-

harra dago". Maiatzeko hauteskundearen aurretik mobilizazio erraldoiren bat egiteko asmoa dute pentsiodunek, baina oraindik ez dute zehaztu noiz eta non izango den.

ARAZO TRANSBERTSALA

Pentsio duinak aldarrikatzeaz gain, langile askok bizi duten prekaritatea salatu eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurotara igotzea eskatzen dute pentsiodunek, Europako Gutun Sozialaren gomendioa aintzat hartuz, soldata minimo bat behar baita, pentsio minimo bat sostengatu ahal izateko. Ildo horretan dei egiten diete gazteei eta langileei ere mobilizazioetara. "Badakigu gazteek beste lehentasun batzuk dituztela (langabezia, prekaritatea...), baina kontuan hartu behar da 10, 20 edo 30 urte barru egoera berean egongo direla, eta komeni dela oinarri sendoak finkatzea". ■

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI



Chris Jiménez

Gaeko biodibertsitatea, gizakiak planetaren eboluzio geo-biologikoan duen eragina eta inpaktua, pinuen gaitza eta basoak kudeatzeko eredu berriak, Aralar natur parkeko pistak eta beste hainbat gai ezagutu eta hausnarketa egiteko aukera izango dugu Ingurumen Jardunaldietan

▲
**'GAUA
GAUEKOENTZAT'**


izenburua duen erakusketa prestatu dute natur eskolako kideek. Gaeko biodibertsitate aberatsa eta bizidunek argi faltari aurre egiteko garatu dituzten moldaerak erakutsiko dituzte

Oso interesgarri datoz aurre Oñatiko Natur Eskolak antolatutako XXIII. Ingurumen Jardunaldiak. Ondoko egitarauan ikus daitezkeen moduan, pil-pilean dauden gaiak gertutik ezagutu eta hausnarketa egiteko bidea eskainiko digute.

Oraingo honetan, gaua eta gizakiaren jarduna ardatz hartutako erakusketa eta hitzaldiak izango ditugu. Izan ere, **'Gaua Gauekoentzat'** erakusketarekin emango zaio hasiera jardunaldiei; bizidunek argi faltari aurre egiteko garatu dituzten moldaerak, gaeko biodibertsitate aberatsa... erakutsiko dizkigute. Honekin lotutako bi hitzaldi ere eskainiko dira. Alde batetik, gaua ikuspegi astronomikotik ezagutzeko aukera izango dugu eta bestalde, bizidunek gauarekiko zer estrategia garatu dituzten eboluzioan zehar irakatsiko digute, izan ere, gautar izatea nitxo ekologikoen espezializazio tenporala da, ez espaziala.

ANTROPOZENOA, GARAI GEOLOGIKO BERRIA?

Lur planetaren eboluzio geo-biologikoa eta gizakiak planetan duen eragina eta inpaktua izango dira gainontzeko hitzaldien hausnarketa gai. Hala, esaterako, geologian azaldu berri den



Gizakia aldagai geologiko bihurtzeko gai ote da?

eta zientzialarien artean eztabaida iturri den "antropozeno" kontzeptua zer den ezagutuko dugu: garai geologiko berri baten aurrean ote gaude?, bere jardunaren bidez gizakia aldagai geologiko bihurtzeko gai ote da?

Honen haritik tiraka datoz gainontzeko hitzaldiak. Pinuen gaitza puri-purian dagoen honetan, gure basoen kudeaketa eredu berria proposatzen duen 'Kolare Guztietako Basoak' proiektua ezagutzeko aukera izango dugu. Aralarko natur parkea ere albiste eta gatazka iturri izan da azkenaldian, pistak eraikitze proiektua dela eta. Hori ere gertutik ezagutzeko aukera izango dugu, Aralar mendilerroaren aberastasuna erakusten duen dokumentala ikusi ostean. Eta bukatzeko, J.I. Perez Iglesias EHU/UPVko biologo eta errektore ohiak aurkeztuta, hausnarketarako aukera izango dugu 'El secreto de la Naturaleza' dokumentalaren bidez. Pedro Miguel Etxenike zientzialariaren bizitzan oinarrituta gure ongizaterako eta Lur planetaren etorkizunerako zientzia, ikerketa, hezkuntza eta dibulgazioaren garrantziaz jardungo da.

Herritar guztiok gonbidatuta gaude jardunaldi benetan interesgarri hauetan parte hartzera. ■

Hitzaldiak

► 'Gaua ikuspuntu astronomikotik'

Otsailak 12, kultur etxea, 19:00
Hizlaria: Esteban Esteban, matematikaria. APEAko (Asociación para la enseñanza de la astronomía) lehendakaria



► 'Gaua gauekoentzat'

Otsailak 13, kultur etxea, 19:00
Hizlaria: Joxerra Aihartza, biologoa (EHU/UPV)

► 'Lurraren historian zeharreko aldaketa globala. Nora goaz?'

Otsailak 19, kultur etxea, 19:00
Hizlaria: Estibaliz Apellaniz, geologoa (EHU/UPV)



► 'Antropozenoa. Gizakia lehen mailako eragile geologikoa'

Otsailak 20, kultur etxea, 19:00
Hizlaria: Jon Betanzos, geologoa

► 'Análisis de la realidad forestal y presentación de la propuesta *Kolore Guztietako Basoak*'

Otsailak 25, **Santa Ana**, 19:00
Hizlaria: Keko Alonso, biologoa



► 'Aralar, mundua leku den lurra'. Dokumentala eta solasaldia zuzendariekin.

Otsailak 26, kultur etxea, 19:00



► 'El secreto de la Naturaleza'.

Dokumentala eta solasaldia

Otsailak 27, kultur etxea, 19:00. Pedro Miguel Etxenikeren bizitza eta lanari buruzko dokumentala. Hizlaria: Juan Ignacio Pérez Iglesias - Biologoa eta EHUko Kultur Zientifikoa Katedraren arduraduna



Erakusketa

'Gaua gauekoentzat'

Otsailak 11 - 27, kultur etxean (18:00-20:00)




Oñatiko Natur Eskolak prestatu duen erakusketa honetan gauaz eta iluntasun osoan (itsas sakonean, haizuloetan...) bizi diren izaki bizidunen ezaugarriak eta bizi baldintzak ezagutzeko aukera izango dugu. Eguneroko (asteleheneretik igandera) ikusgai kultur etxean, 18:00-20:00

Bestelakoak

ZINE KLUBA

► 'Un día más con vida'

Otsailak 21 (20:00)
Zuzendariak: Raúl de la Fuente eta Damian Nenow. Angolaren deskolonizazioa (gerra zibila) kontatzen duen animazio filma. Animazio dokumental onenaren Europa eta Goya saria.



► 'Caras y lugares'

Otsailak 28 (20:00).
Zuzendaria: Agnès Varda. Zinegile beteteranoa eta Jean René artista grafiko urbanoaren lanari buruzko dokumentala. 2017ko dokumental onenaren oscar saria.



ZUHAITZ FERIXIA

Martxoak 2, herriko plazan, goizeko 9etatik aurrera.



ZUHAITZ EGUNA

► Martxoak 3, (10:00) Foruen plazan

► Martxoak 10, (10:00) Unaimendin, Aloñako Lagunekin elkarlanean

 **COINBROKER**
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati

☎ 943 089 006 ✉ oinati@coinbroker.eus
🌐 www.coinbroker.eus

 *Amalia Igartua*
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Igogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



Itxaro Leibar, udal gizarte zerbitzuetako zuzendaria, eta Eguneko Zentroan hasieratik lanean diharduten Naiara eta Lorea

EGUNEKO ZENTROA diputazioaren esku geratu da

Euskadiko Gizarte Zerbitzuen legea betez, urtarrilaren 1etik aurrera Foru Aldundiaren KABIA erakunde publikoaren esku geratu da Oñatiko Eguneko Zentroa, hogeitau urteko ibilbidearen ostean

Euskadiko Gizarte Zerbitzuen 2008ko Legeak ezartzen du dependentzia duten pertsonen zuzendutako zerbitzu publikoek (zaharren egoitzak eta eguneko zentroak) Foru Aldundiaren esku egon behar dutela, eta, hala, legea betez, urte hasierarekin batera KABIA foru erakundearen esku geratu da Oñatiko Eguneko Zentroa.

Aurten hogeitau urte beteko dituen zerbitzua da, eta herritarrek oso ondo baloratzen dute. Gaur egun 30 plaza eskaintzen ditu, eta denak beteta daude.

Gainera, itxaron zerrenda luzea dago.

Orain, esan bezala, eskuz aldatu da zerbitzuaren ardura, baina horrek ez du aldaketarik ekarriko eguneroko funtzionamenduan. Beraz, erabiltzaileak lasai egon daitezkeela esan digu udaleko gizarte zerbitzuetako zuzendari Itxaro Leibarrek. "2018ko urrian udalak Aita Menni Taldeari esleitu zion eguneko zentroaren eta San Martin egoitzaren kudeaketaren ardura, eta, beraz, zerbitzuak berdin jarraituko du, orain arte bezala, nahiz

«Orain arte bezala, Aita Menni fundazioak kudeatuko du Euneko Zentroko jarduna, eta, beraz, ez da aldaketarik egongo zerbitzuari dagokionez»

ITXARO LEIBAR
Udal gizarte laguntzailea

eta orain KABIAREN esku egon, eta ez udalarenean. Aldatzen den gauza bakarra da, erabiltzaileari bidaliko zaion erreziboa diputazioak bidaliko diola, eta ez Oñatiko udalak".

Hala ere, eguneko zentroa erabili nahi duten herritarrek udaleko gizarte zerbitzuen birtartez (Bidebarrieta, 12) egin beharko dute eskaera, orain arte bezala. "Legeak dio tokian tokiko udalak direla gizarte zerbitzuetarako sarrerako atea herritarrentzat. Beraz, eguneko zentroa edo beste laguntzaren bat behar duten herritarrek guregana jo behar dute lehenengo, eta guk bideratuko dugu eskaera dagokion erakundera" azaldu digu Itxarok.

20 URTEKO IBILBIDEA

1999ko ekainaren 1ean zabaldu zituen ateak Oñatiko Eguneko Zentroak, eta, beraz, hogeitau urte

beteko ditu aurten. Era hone-
tako eskualdeko lehenengo
zentro publikoa izan zen, ltxa-
rok azaldu digunez. “Gero eta
garbiago ikusten zen honelako
baliabide baten beharra; jendea
adinean aurrera, seme-alabak
etxetik kanpora lanean, gure na-
gusiak gero eta ordu gehiago
etxean bakarrik... Orduko udal
arduradunek pentsatu zuten
egokia izango zela era hone-
tako zerbitzu bat Oñatin jartzea,
eta, hala, Deba, Andoain eta
Donostialdeko beste eguneko
zentro batzuk bisitatu ostean,
Foru Aldundiarekin harreman-
tan jarri eta denon artean atera
genuen proiektua aurrera, San
Martin egoitzaren aldamenean,
ordura arte anbulatorioa egon
zen lokaletan”.

Apal-apal ekin zion bideari,
14 plaza eskainiz. “Aurreneko
bi-hiru urteetan 6-7 erabiltzaile
izan genituen gehienez, baina
poliki poliki gora egin zuen es-
kaera kopuruak” gogoratzen du
ltxarok. “2003rako plaza guztiak
beteta genituen; beraz, foru al-
dundiko atea jo genuen berriro
eta 2008an 25 plaza hitzartu
genituen, eta poliki poliki gehituz
joan gara 30era iritsi arte. Oñati-
ko eguneko zentroak daukan
edukiera kontuan hartuz, ho-
rixerik da topea; nahita ere ezingo
genuke plaza gehiago eskaini.
Gaur egun beteta dago eta 16
persona daude ltxaron zerren-
dan”. Hogeituro urteko ibilbidean
500dik gora herritarrek erabili
dute Oñatiko eguneko zentroa.

Azpiarratzekoa da, bestalde,
2006an ISO 9001 kalitate agiria
lortu zuela eguneko zentroak.
“Izugarrizko lana eskatu zigun
denoi, baina oso harro gaude,
prozedura guztiak oso sistema-
tizatuta ditugulako, eta hori oso
inportantea da zerbitzu egokia
eman ahal izateko”.

BALIABIDE APROPOSA

Eguneko zentroko erabiltzaileak
goizeko 9:30ak aldera iristen dira
bertara, eta arratsaldeko 18:30ak
bitartean hainbat aktibitate egi-
ten dituzte: psikomotrizitate ari-
ketak, eskulanak, marrazkiak,



Goian, eguneko zentroko erabiltzaile batzuk ariketa ezberdinak egiten, eta zentrora iristen.
Behean, zerbitzuko langileak (auxiliarrak, gizarte laguntzailea eta psikologoa)



«Persona bere
osotasunean
(estimulazioa,
elikadura, higie-
nea, sozializazioa...)
hartzeko duen
zerbitzua da
Eguneko Zentroa»

«Etxean,
bakardadean, ordu
asko pasatzen
dituzten adineko
pertonentzako
baliabide aproposa
da»

ITXARO LEIBAR
Udal gizarte laguntzailea

egunkariak irakurri, albisteak
kommentatu... Egun osoan entren-
tunita egoten dira. Bazkaldu
eta meriendatu ere bertan egi-
ten dute, eta, nahi izanez gero,
bainua ere hartzen dute.

Gainera, erabiltzaileen ebalua-
zio eta jarraipen pertsonalizatua
egiten da gizarte laguntzaile eta
psikologo baten laguntzarekin,
eta familiekin ere bilerak egi-
ten dira sarri, beraien senideen

gora-beheren berri emateko.
ltxaroren ustez errekurtsu oso
aproposa da etxean ordu asko
bakarrik egoten diren pertsona
nagusientzat. “Estimulazioa,
sozializazioa, elikadura, higie-
nea... Pertsona osotasunean
hartzeko duen zerbitzua da, eta,
gainera, ez da garestia, kontuan
hartuz, gehienez ere 16,83€
ordaintzen direla eguneko”. ■

San Martin egoitza ere KABIaren esku

Eguneko Zentroa bezalaxe, San Martin egoitza ere Foru Aldundiaren Kabia erakunde publikoaren esku geratu da urtarrilaren 1ean, Euskadiko Gizarte Zerbitzuen legea betez. Udalak eraikina eta bertako altzariak laga dizkio diputaziori, eta langileekiko betebeharrak ere Kabiak bereganatu ditu.

Baina eguneroko zerbitzuari dagokionez ez da aldaketarik egongo. Iazko urriaren 1ean Aita Menni fundazioari esleitu zion udalak San Martin egoitzaren eta Eguneko Zentroaren kudeaketa, bi zerbitzuak modu bateratuan koordinatzeko, eta, beraz, orain arte bezala funtzionatuko du, Kabia-ren ardurapean.

Donostiak miradore edo begiratoki berria izango du urte bukaerarako. Artzain Onaren katedraleko dorre nagusia zaharbertitzeko lanak baliatuz, eskailera berria egokituko dute kanpandorreen gora, 50 metroko altueraraino, jendeak bertaraino igo eta hiriaren ikuspegi ederrez gozatu ahal izan dezan. Bergarako Zetabi Arkitekto bulegoak idatzi du proiektua eta bertan diharduen Aitor Zubia Azkue oñatiarrak eman dizkigu proiektu berezi honen inguruko azalpenak.

Artzain Onaren katedrala 120 urteko eraikina da, eta lehenago beste berritze lan batzuk egin izan bazaizkio ere, (azkena duela berrogei urte) dorre nagusiko harria nahikoa hondatuta dago, eskuineko irudiak erakusten duten moduan. Itsasaldetik datorren hezetasunak eta gatzak gogor erasaten dio hareharriari, eta, beraz, aldiro aldiro tratatu egin behar da harriaren bizi-raupena luzatzeko.


Oraingoan Zetabi Arkitektura Bulegoak idatzi du zaharbertitze proiektua, eta bi zati nagusi ditu, Aitor Zubia arkitekto oñatiarrak azaldu digun moduan. "Alde batetik, harri-zko azalera guztia saneatu, garbitu, gatzgabetu eta kontsolidatuko dugu; gainera, kaltetutako harriaren bolumenak berreskuratu ondoren, juntura guztiak berritu eta inpermeabilizatu egingo dugu. Eta, bestetik, dorrearen barrualdeko forjatuak eta komunikazio bertikaleko elementuak berrituko ditugu, kanpaiak barne".

Zaharbertitze lanek 1,5 milioi euroko (BEZ gabe) aurrekontua dute eta lau erakundearen artean ordainduko dute: Madrilgo Sustapen ministeritzak %50; Gipuzkoako Foru Aldun-

BEGIRATOKI berria izango du Donostiak



Artzain Onaren katedraleko dorrearen berritze lanak baliatuz, eskailera bat egokituko dute bertan eta bisitariak 50 metroko altuerara igo ahal izango dira. Aitor Azkue arkitekto oñatiarra dago proiektuaren atzean.



Zetabi Arkitektura-ko Uzuri Larrañaga, Aitor Zubia, eta Xabier Zabala

diak %25, Donostiako udalak %12,5 eta Gotzaindegiak gainerako %12,5a. Dena ondo bidean, urte amaierarako bukatuko dituzte dorrearen berritze lanak.


ESKAILERA ETA BEGIRATOKIA

Gipuzkoako eraikin garaiena da (75 metro) Artzain Onaren katedrala, eta berritze lanak baliatuz jendearentzat irekia egongo den begiratoki bat egokituko dute bertan, 50 metroko altueran. Horretarako eskailera berria eraikiko dute bertan. Altzairuzko egitura eta zurezko 125 maila izango dituen eskailera kiribila izango da, bisitariak 3. solairutik (25 m.) zortzigarreneara (50 m.) eramango dituen, pinakuluaren oinarriaraino, hain justu.

Kontuan hartuz inguruko eraikinek gehienez ere 26 m.-ko altuera dutela, Artzain Onaren dorrea begiraleku pribilegiatua bilakatuko da, Zubiak baieztatu digunez. "Bai. Donostia osoaren 360°-ko begiratokia izango da, eta hiria ikuspuntu ezberdin batetik ikusteko aukera emango digu; orain arte, permietrotik, Igeldo, Ullia edo Urgull aldetik begiratzen ohituta gaude, baina katedralaren kokapenak hiriaren beste perspektiba bat eskainiko digu. Oso bista ederrak daude bertatik. Uste dut erakar-garria gerta daitekeela, bai turistentzat, eta, batez ere, donostiarrentzat eta hiriburura hurbiltzen den probintziako jendearentzat".

Donostiako udalak eta gainerako erakundeek begi onez ikusi dute Bergarako arkitekto taldeak egindako proposamena, eta obrak amaitzen direnean Donostiak miradore berria izango du. Donostiako udalak kudeatuko ditu bertako bisitak. ■

Donostiako udalak eta gainerako erakundeek begi onez ikusi dute Bergarako arkitekto taldeak egindako proposamena, eta obrak amaitzen direnean Donostiak miradore berria izango du. Donostiako udalak kudeatuko ditu bertako bisitak. ■




► **Bistak.** Artzain Onaren dorreak Donostiako bista ederrak eskainiko ditu, goiko argazkiek erakusten duten moduan.



► **Harrria.** Goiko argazkiak erakusten duen moduan, Artzain Onaren katedraleko dorreko hareharrria nahikoa kaltetuta dago, itsasaldetik datorren hezetasuna eta gaztaren eraginez, batez ere.

Dorrearen zeharkako ebaketa



► Donostiako udalak kudeatuko ditu bertako bistak

► Urte amaierarako prest egongo da Artzain Onaren katedraleko begiratoki berria.

360°ko begiratokia izango da, eta Donostia inoiz ikusi gabeko puntutik behatzeko aukera emango du

INGO XONAU! proiektua jaio da, Oñatiko emakumeen hitanoa jaso eta biziberritzeko proiektua. Herri ekimenetik sortu da, kezka batetik abiatuta: nokaren egoera eskasa. Oñatin mutilen hika bizi-bizirik badago ere, emakumeena ez hainbeste: 60 urtetik beherakoan artean oso gutxi dira noka darabiltenak. Gero eta gutxiago, tamalez. Egoera horri aurre egiteko asmoz, oñatiar taldetxo bat elkartu da -filologoak, irakasleak, feministak...- eta *Ingo xonau!* proiektua jarri dute abian. "Ezer egiten ez badogu, betiko galduko da", dio Idoia Etxeberria taldekideak. Eta ez daude noka galtzen uzteko gertu!

FASE EZBERDINAK

Proiektuak hainbat fase izango ditu. Lehenengoa aurre egiteko dute: diagnostikoa eta jasoketa lana. Batetik, nokaren egoera zein den aztertuko dute (auzo zuzen, zenbat emakumeek hitz egiten duten hika). Bestetik, elkarrizketak egingo dituzte: 15 emakume elkarrizketatuko dituzte, emakumeen hika jasotzeko. Ondoren, bideo labur bat



gertatuko dute, nokaren gainbeheraren nondik norakoei buruzkoa. Horrez gainera, grabazioak landu eta bideo pasarteak *Ahotsak.eus* webgunean ipiniko dituzte. Etxeberriak egingo ditu elkarrizketak, Badihardugu elkartetik; badute eskarmentua ahozko ondarea jasotzen.

Taldekideak dagoeneko kontaktuak egiten dabilta, han eta hemen galdezka, eta laster hasiko dira elkarrizketekin ere.

"Ilusiño haundixarekin gabiltz". Parte hartzeko edo laguntzeko gogoz daudenek hauxe dute haiekin harremanetan jartzeko bidea: ingoxonau@gmail.com / 615755784 (Idoia).

Oñatiko Udalaren laguntza izango du proiektuak. Lehenengo fasearen emaitza abenduan aurkeztuko dute. Hori bai, *Twitter* eta *Instagram* bitartez joango dira prozesuaren berri ematen, aldiro-aldiro. Hurrengo faseetan, noka berreskuratzeko eta hitanoa biziberritzeko pausoak ematea aurreikusten dute: materiala, ikastaroak... "Lehenengo jaso egingo dogu, eta gero zabaldu. Asko dago egiteko eta apurka-apurka fango gara. Bidiarekin disfrutaiten".

INGO XONAU! emakumeen hika biziberritzeko proiektua

«Oso gutxi dira noka darabilten emakumeak
Oñatin, 60 urtetik beherakoan artean.
Ezer egiten ez badogu betiko galduko da»

Parte hartzeko edo laguntzeko gogoz bazaude, jarri harremanetan : ingoxonau@gmail.com / 615755784

Bezeroen beharrei
erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6
Tif.: 943 78 16 48
email: onati@gualbiasores.com

www.gualbiasores.com

dOr

Errementari plaza 5 behea

T. 943 53 36 47

www.dorestetika.com

Instagram dorestetika

*Etorkizuna iritsi da gurera,
ez itxaron gehiago!*

MIKROPIGMENTAZIOA

LASER DEPILAZIOA

Coolite Plus laser depilazioa

Merkatuko diodo laser aurreratuenarekin lana egiten duen Euskadiko lehen zentroa gara. Metodologia berritzailea, azkarra, eta lehen sesiotik eraginkorra.

10 urteko esperientzia daukagu laser depilazioan.
Zatuz eta informatu zaitetz konpromisorik gabe.

PREZIO BEREZIAK!!


Zer da mikropigmentazioa?

Tratamendua larruazaleko gainazalean pigmentua ezartzean datza, aurpegiko zein gorputzeko hazpegiak zuzentzeko, edertzeko edo hobetzeko asmoz.

Bestalde, **mikropigmentazio paramedikoa** ere badaukagu. Bularren areolen berreraikitzean oinarritzen da, gehienetan kasu onkologikoetan ematen dena.

Tratamendu honetan espezialista den teknikari bat daukagu.

Facebook: [f](#) Mikropigmentación Maitane Basterra
Instagram: [mb_mikropigmentacion](#)



Olakua auzoa eraberritzeko lanak aurten hasiko dira

- ▶ Urbanizazioa berri eta oinezkoen ibilbideak irisgarritasun arauetara egokitzeko plana idatzi du A2B Arquitectos enpresak udalarentzat.
- ▶ Guztira, **2,6 milioi** euroko aurrekontua du planak. ▶ Aurten 230.000 euro bideratuko ditu udalak Olakuako lanetara



ZAZPI FASE ►

Ondoko irudiak erakusten duen moduan, zazpi fase edo unitatetan bereiztu dira Olakua auzoko irisgarritasun lanak. Fase hauetako bakoitza ere zatitu ahal izango da txikiagoetan, egite-proiektu zehatzak idatzi ahala, uneak uneke diru baliabideen arabera burutzen joateko

OLAKUA auzoko urbanizazioa eraberritu eta irisgarritasun edo akzesibilitate arauetara egokitzeko plan orokorra esku artean dauka udalak. A2B Arquitectos enpresak egin du azterlana, eta ondoko planoan ikus daitekeen moduan, Olakua auzoan dauden oinezkoen ibilbide guztiak, zebrabideak, ezinduentzako aparkalekuak eta autobus geltokia hartzen ditu barne.

Olakua 7 eta 9 zenbakidun etxe-blokeen inguruko eremua plan orokor honetatik kanpo geratu da, 2017an burutu zirelako bertako urbanizazioa berritu eta irisgarri egiteko lanak. Autobus geltokia ere 2002an berritu zen, Lazarraga kaleko irisgarritasun lanen baitan, eta beraz, eremu honetan zoladura mantentzeko eta ukipen-seinalizazioa hobetzeko lanak besterik ez dira egingo.

DIAGNOSTIKOA ETA AKTUAZIO PLANA

Gainerakoan, Olakua auzoko oinezkoen ibilbide guztien egoeraren diagnostikoa egin du A2B arkitekto bulegoak, eta irisgarritasun arauak ahal den heinean betetzeko egin beharreko lanak proposatu ditu, hala nola: espaloiak zabaltzea, desnibelak gainditzeko eskailera eta arrapalak egokitzea, zoladura berritzea, ikusmen urria duten pertsonen orientazioa errazteko zoladura bereiztea, zebra-bideak egokitzea....

Olakuako irisgarritasun planak 2.638.477 euroko (BEZ barne) aurrekontua du guztira, eta zazpi fase edo ekintza-unitate bereizi dira, beheko irudiak erakusten duen moduan. Fase hauetako bakoitza fase txikiagoetan zatitu ahal izango da, egite proiektuak zehaztu ahala, unean uneko diru baliabideen arabera burutzen joateko.

Udalak aurrekontuaren bertan ekingo die Olakua eraberritzeko lanei, eta horretarako 230.000 euroko diru atala ago 2019ko aurrekontuetan, baina oraindik ez du erabaki nondik hasiko diren berritze lanak.



**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernandez

Zure ETXEA eguneratu gutxieneko inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua errazteko

626 114 382
aranhernandez@aranhernandez.com



Baratzeko Pikua

jolasgune alternatiboa prest
San Martín auzoan

Zorioneko daude gaztetxoak, jolasgune berria izango baitute aurrerantzean San Martín auzoan. Eta ez nolana hiko, desberdina baizik, alternatiboa. Hemen ez dute aurkituko ohiko jolas parkeetan egoten diren ziburu eta bestelako elementu konbentzionalik. San Martingo jolas leku berrian erraldioak diruditen pago enborrak, indioen gisara gordeteko tipia, belar usainduak, gazteluak egiteko hondarra, ur putzua, txirrista, pneumatikoz egindako eskailera, rokodromo txiki bat eta parkeari izena ematen dioten pikondoak aurkituko dituzte, besteak beste. Naturako elementuak baliatuz, haurren irudimena, sormena eta bestelako jolasak bultzatzeko helburuz sortutako parkea da.

Iñigo Seguroiak (Lur Paisajistak) diseinatu du jolasgunea, udalaren enkarguz, 'Olaran Paisaia' proiektuaren baitan. Seguroia bera eta baita udal arduradunak ere oso pozik daude emaitzarekin. Denborarekin, gainera, bertako zuhaiz eta landarak hazi eta indartu ahala, parkea ederragotuz joango dela esan du Seguroiak; "jasmin-loreen tunela osatuko da, arteek kerizpea emango dute, pikondoetara igo eta pikua jateko aukera egongo da...".

LORALDI IKUSGARRIA

Baratzeko Pikua jolasgunea egokitzeaz gain, goialdean, San Martín auzoko plaza nagusiko berdegunea zabaldu egin dute (350m² gehiago), eta negu bukaeran zuri kolorez jantzten diren bost gereziondo japoniar landatu dituzte bertan. Bost urte barru ikusgarri egongo dela iragarri du Seguroiak.



Goian, txirrista eta pneumatikoz egindako eskailera. Behean, Iñigo Seguroia eta udal arduradunak.



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERMOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Baratzeko Pikua jolasgunea ERABILTZEKO GIDA

▶ TIPIA

Babestu, gorde, ezkutatu zaitez egitura honetan, eta izan indio une batez.

▶ GRADAK

Pneumatikoz egindako mailatan eseri, elkartu lagunekin eta planak egin.

▶ ARBELA

Hartu klariona eta idatzi edo marraztu paretan dagoen arbel erraldoian; utzi mezuak lagunei, idatzi maitasun-gutunak, zure olerkiak...

▶ USAIN BELARREN PLAZA

Eseri pneumatikoen ertzetan eta ikutu, igurtzi, laztandu atzean dituzun hostoak. Ikasi ze usain duten. Ez duzu sekula ahaztuko.

▶ ERRALDOIEN PLAZA

Pago enbor ihartuen barruan bizidun ugari aurkituko dituzu: kakalardoak, kukulunbera beltza...

▶ HAREZKO ZORUA

Ez dago hondartzara joan beharrik gazteluak egiteko.

▶ ROKODROMOA

Heldu tinko euskarriei eta hasi gorako bidean. Eroriz gero, 30zm.-ko pinu-azaleko zoruak leunduko du erorikoa

▶ ITURRI PLAZA

Akazia enbor zurituen babesean, hiru iturri, egarria asetzeko eta urarekin jolas egiteko; busti zaitez lasai, urak ez du kosk egiten.

▶ TXIRRISTA

Jolasgunera azkar eta zuzen sartzeko lekua. Ibili irristaka behin eta berriz, ipurdia bero-bero ipini arte. Eta txirristan jeitsi ondoren, gorako bidea pneumatikozko eskailek egiten.

▶ GURASOAK

Esan guraso eta zaintzaileei jolasgunean ez sartzeko. Helduak egon daitezela goiko plazan; handik ikusiko dute hemen gertatzen den guztia

Bizikidetzaren unitatea hautsi eta diru sarrera urriak dituzten emakumeentzako dirulaguntza deialdia

Edozein arrazoi medio (banaketa, alarguntzea...). bizikidetzaren unitatea hautsi eta diru sarrera urriak izanik, familia kargak dituzten emakumeei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du udalak. Laguntza eskuratu ahal izateko, Oñatin erroldatuta egon behar da, gutxienez 12 hilabete lehenagotik, eta hileko diru sarrerak ezin dira izan lanbide arteko gutxieneko soldataren %75 baino handiagoak. Udal gizarte zerbitzuetan (Bidebarrieta, 12) egin behar dira eskaerak, abenduaren 15a bitartean.

Etxeetan su detektagailuak jartzeko deialdia

Etxe partikularretan su detektagailuak jartzeko laguntza deialdia egin du udalak. Bakarrik edo 80 urte beteta dituen beste lagun batekin bizi diren 80 urtetik gorako herritarrek eska dezakete. Gazteagoek ere jaso dezakete udalaren laguntza, mendekotasun, bakardade edo arrisku egoeran bizi badira. Udalak hartzen ditu bere gain detektagailuaren instalazio eta mantentze gastuak. Lehendik 130 bat etxetan daude halako aparailuak. Udal Gizarte zerbitzuetan (Bidebarrieta, 12 /943037700) egin behar da eskaera. Epea: urriak 31.

Adikzio mota ezberdinen tratamendurako laguntzak

Adikzio mota ezberdinen tratamendurako 2019ko dirulaguntza deialdia egin du udalak. Tratamenduan dagoen pertsonak Oñatin bi urte erroldatuta egon behar du, edo bertan erroldatuta dauden senideekin bizi, eta gutxienez, lau hilabete eraman beharko ditu errehabilitazio programan. Zentrorako joan-etorriek eragindako garraio gastuak arintzeko emango dira laguntzak. Udal gizarte zerbitzuetan (Bidebarrieta, 12) egin behar dira eskaerak.

Gizarte larrialdietarako dirulaguntza deialdia

Diru sarrera urriak dituzten herritarrei zuzendutako larrialdietarako 2019ko dirulaguntza deialdia egin du udalak. Etxearen alokairuak, mantenuak eta norberaren beharrezko eragindako gastuei aurre egiteko laguntzak dira. Udalak 125.188 euroko diru atala du laguntza hauetarako, Jaurilaritzak ematen dituen 48.887 euroak osatuz. Oñatin erroldatuta egotea eskatzen da, gutxienez sei hilabete lehenagotik. Udal gizarte zerbitzuetan egin behar da eskaera.

Tabernen ixte ordutegia luzatzeko egutegia

Urtean zehar taberneak ixte ordutegia luzatzeko aukera izango duten egunen zerrenda osatu du udalak. Orain arte, herriko jaietan edota auzokoetan eman izan da ordutegia luzatzeko baimena, garaian garaiko jaiak iritsi ahala. Orain aldiz, urte osorako egutegia finkatu da. Hala, aipatutako egunetan ez ezik, Aste Santuan, Inauterietan, Gabonetan, abuztuko oporren hasieran eta bukaeran, eta zenbait egun puntaletan ere (Kintto eguna, Kantoikrit, Oñatiko bertso txapelketako finala, Beteranoen txapelketako finala, Fan Hemendik eguna, San Juan bezpera...) luzatu ahal izango dute ixte ordua, bi orduz gehienez.



2018an ZEHAR UDALAK BURUTU DITUEN PROIEKTU AIPAGARRIENAK

2015-2019 agintaldia amaierara iristen ari da. Urtarrileko zenbakian azaldu genituen luze eta zabal agintaldiko azken ekitaldi honetako aurrekontuak eta egitasmo nagusiak. Horrekin batera, bukatu berri den urtearen balantzea ere egin du udal gobernu taldeak, iaz burututako proiektuen erreposoa eginez. Hona hemen aipagarrienak.



Kasablankako parkea
kirol gune eta jolas
elementu berriak
54.000 €



Baratzeko Pikua
Jolasgune alternatiboa
San Martin auzunean
136.000 €



Urgain-Errekalde
eskolako sotoko
instalazio berriak
340.000 €



San Pedroko biltegia
berritu da udal
brigadarentzat
70.000 €



Udal artxiboaren
gordailu berria
Bidebarrieta kalean
67.300 €



Informazio bulegoa
adineko pertsonen
gizarte zerbitzuen berri
emateko



Txarteldegi digitala
kultur ekitaldietako
sarreraren aurre-
salmentarako 22.000 €



Partaidetzazko
aurrekontuen prozesua,
500.000 € zertan
gastatu erabakitzeko



Eltzia eraikina
kanpoaldetik margotu
60.000 €
eta taberna zabaltzea



Azoka biziberritzeko
zozketak eta bestelako
ekimenak herriko
ekoizleekin batera



Eskola kirola
programa berria ikaste-
txekin elkarlanean
11.200 €



Laneratz hitzarmena
Bidebarri-Ulma
gizarteratzea eta lanera-
tzea sustatzeko 10.000 €



Argiteria berritu da
parrokiako sarreran,
Bakardadeko Ama
kalean, Bidebarrietan...



Kiroldegia berritu
eta handitzeko proiektua
egin da. Aurten bertan
hasiko dira lanak.



Olakua auzoko
urbanizazioa berritzeko
irisgarritasun plan
orokorra egin da



Larrañako aldagelak
berritu dira kirol eskolen
eta Aloña Mendiren
jardunerako 26.625 €



Eskolako Bidea
Juntalekuak eta
Hirigintza Taktikoko
ekimenak burutu dira



Matinee kontzertuak
igande eguerdiko
ordutegiaren aldeko
apustua Gaztelekuan



Gaztelekuko sotoan
rokodromoa, leiho
berriak, eskenatokia
berrikuntzak... egin dira



Berdintasun kontseilu
herritarra osatzeko
partehartze prozesua
15.300 €



San Martin egoitza
eta Eguneko Zentroaren
kudeaketa integratu eta
bateratu egin da

Auzo-bideen asfaltatze eta konponketa lanak

2018ko auzo-bideen asfaltatze eta konponketa plana osatu du udalak. Hala asfaltatze lanak egin dira Urbarri auzoan (Azkarraga Errotarako bidean), Araotz Zubian (Erramuena, Otorora eta Enparantza baserri inguruetan) eta Araotz Urrutin (Artalderako aldapan). Danera 41.700€ (+BEZ). Bestalde, bideak konpontzeko lanak egin dira Zubillagan (Erguin Etxebarri baserrirako bidean) eta Olabarrietan (Kortabarri baserrirako bidean). Guztira, 16.627€ (+BEZ).



Argiteria berritzeko lanak

Herriko gune ezberdinetan egiten ari diren lanak baliatuz, argiteria berritzea erabaki du udalak. Hala, sodiozko lurrunezko luminaria zaharren ordeztu, led erako argiak ipiniko ditu San Lorentzoko goiko plazan (10.915€), Etxaluzeko parkean (9.821€) eta Zubillagako bizitegi eremu nagusian, eliza eta auzo-etxe inguruan (6.478€). Aurrekontuak material hornikuntzari dagozkio, obra zibila eta instalazioa aparte.

Olapotoko anfibioentzako putzua. Urriko zenbakian aurreratu genuen moduan, Olapotoko sakon-gune batean anfibioentzako putzu bat egokitzeko asmoa zeukan udalak, Oñatiko natur eskolako eskaria aintzat hartuz. Aranzadi elkarteko adituen gidaritzapean egin ziren lanak, eta argazkian ikusten den moduan, dotore geratu da ingurua. Egurrezko itxitura jarri zaio, ez baita komeni txakurrak-eta putzura sartzea. Harriak eta egur-hilak ere ipini dira putzuaren inguruan, anfibioek gordelekuak izan ditzaten. Udaberri alderako putzu inguruko landaredia ere haziko da, anfibioen mesedetan, baina, dagoeneko, baso-igel gorriak eta beste espezie batzuk ere azaldu dira bertan. Aurrerago, putzuaren inguruan sortzen den bioaniztasunaren inguruko informazio panelen bat jartzeko asmoa dute natur eskolakok.



ENGLISH SUMMER CAMPS IN OÑATI

INGELESEKO UDALEKUAK OÑATIN

Zaintza zerbitzua: from 8:00 a.m to 9:00 a.m
Adina: from 5 to 11 years old
Ordutegia: from 9:00 a.m to 13:00 p.m
Iraupena: 2-4 weeks
Datak: July 1-29
Ekintzak: INGELESA joku, eskulan, kirol eta festen bittartez



Barrixa!!
Native monitors

www.mondragonlingua.com

OÑATI
Motxon, 7. Tel.- 943716000
mloinati@mondragonlingua.com

mondragon Lingua

Lankidetzaz hitzarmena sinatu dute udalak eta Araotzeko auzoak

Udalak eta araoztarrek lankidetzaz hitzarmena sinatu dute nesken eskola zaharra ostatu bihurtzeko proiektuari ekiteko. Auzoak eraikinaren doako lagapena egingo dio udalari hamar urterako, eta udalak kontratatuko du ostatua ustiaturako duen arduraduna. Halaber, udalak hartuko du bere gain ostatuaren mantenu arrunta.

EAJren udal taldea abstenitu egin zen gai honetan, urtarreko osoko bilkuran. Landa auzoak berpiztearen alde egon arren, eta araoztarren inplikazioa errespetatzen dutela esan ostean, EAJk zalantzan jarri zuen ostatuaren bideragarritasuna eta hori ote den auzo

biziberritzeko biderik egokiena.

Alkateak esan zuen ostatua eta honen inguruan eskaini ahal izango diren beste zerbitzu batzuk (denda, haurtzaindegia, liburutegia...) bide egokia izan daitekeela jendea erakartzeko, eta gainera, araoztarrek erakutsi duten konpromiso maila ikusita, udalak bidelagun izan behar duela.

Dagoeneko, lehen faseko lanen lizitazio prozesua abian jarri du udalak 329.245€-ko (BEZ barne) aurrekontuarekin. Jaurlaritzak 147.000€ ipiniko ditu, eta gainerakoa erdibana udalak eta auzoak.



Elkartasun proiektu berria

► **Ginea Konakryn eskola bat eraikitzeko 30.000€ batzen saiaturako da Parrokiako Misio Taldea hurrengo bi urteetan**

Parrokiako Misio Taldeak elkartasun proiektu berri bat jarri du martxan. Ginean (Afrika) eskola bat eraikitzea da helburua, eta horretara bideratuko du bere ahalegina hurrengo bi urteetan.

Oñatin bizi den ginear batek sustatutako proiektua da, eta Konakry hiriburutik 350km.-ra dagoen *Telimele* hirian eraikiko da ikastetxea. Proiektuak 90.000€-ko aurrekontua du, eta misio taldeak 30.000€-ko ekarpena egingo du.



Telimele-ko eskola bat

AFARI SOLIDARIOA, ANTZERKIA ETA TXOKOLATADA

Otsailaren 22an egingo da urteko lehenengo elkartasun afaria, Bidaurretan (20:00), eta bertan batutako dirua Gineako eskolarako izango da. Afalostean proiektuaren inguruko xehetasunak emango ditu ginear batek. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Otsailaren 24an Pake Lekuko antzerki taldeak Santa Ana aretoan (19:00) taularatuko duen 'Juzgado de Guardia' antzezlaneko sarrerarekin (5€) batzen den dirua ere proiektu honetara bideratuko da, eta baita ere inauterietan (martxoak 5) plazan (18:00) egingo den txokolatadako dirua ere. ■



First Lego League txapelketara

Zuazola-Larraña institutuko DBH-4ko ikasleek Euskadiko *First Lego League* lehiaketako finalean parte hartuko dute otsailaren 16an, erkidego autonomoko hogeitakostetxetako hainbat talderekin batera.

Ikasleengan bokazio zientifiko-teknologikoa sustatzea da lehiaketa honen helburua. Hala, ikasleek hiru proiektu landu behar izan dituzte 'INTO ORBIT' erronkaren inguruan.

Zientzia arloari dagokionez, espazioko bizitza errazteko soluzioak proposatzea zen erronka, eta Zuazolako ikasleek astronautek lo egiteko izaten dituzten arazoentzako soluzioak proposatu dituzte, elikadura, ariketa fisikoa eta erlaxazioan oinarritzen den errutina baten bidez.

Arlo teknologikoari dagokionez, 'TO2' izeneko robota diseinatu eta programatu behar izan dute, misio zehatz batzuk egin ditzan, mekanika eta informatika uztartuz.

Horrez gain, beraien jardunean inklusioa, elkarlana eta integrazioa bezalako baloreak aplikatzen dituztela erakutsi beharko dute epaimahaiaren aurrean.

Urtarrilaren 19an Mondragon Goi Eskola Politeknikoak antolatutako *Micro First Lego League* saioan parte hartu zuten, Gasteizko finalerako proba gisa, eta gustura geratu ziren emaitzarekin. Epaimahaiak zoriondu zituen eta, beraz, ilusio handiz ari dira Gasteizko finala prestatzen. Hiru talderik onenak estatu mailako finalerako sailkatuko dira. Zuazola-Larrañako taldeak ULMaren dirulaguntza jaso du proiektua aurrera ateratzeko. Informazio gehiago: @to2_fill (Instagram). ■

HOTZ TALDIAK Oñatiko herriari

2018ko abenduaren hasieran, Oñatiko Hotz taldiak **katillu solidarioak** kanpaiñari ekin otsan, gobernuz kanpoko talde batzuen biharrei erantzuna emuteko asmuagaz. Katillu horreik, Ines eta Fran artisauak egindakua dira, eta Greziako errefuxiatu kanpamentuetako umiak egindako marrazkixak ebali zittuain horretarako. **1500 katillu saldu ziran Oñatin.** Marka ikaragarria! Katillu horreik emundako etekiña, **SMH (Itsas Salbamendu Humanitarioa) eta Red SOS Refugiados gobernuz kanpoko erakundia** bialdu xate oso-osorik. Aurrerantzian, **Katillu Solidarioak** kanpaiñak jarraituko dau, eta katilluak eskuragarri izangodittuzue **ERREKALDEKO DENDAN, TXOKOLATEIXAN, TURISMO BULEGUAN eta KALE BARRIA 54an.**

Honenbestez, gure eskerrik zintzo eta beruenak emun gura dostegu Oñatiko herritarrai, kanpaiña honi eskeiñi xauen babes eta pultzakada indartsuagatik, baita, enpresa desberdinetan salmenta erraztu doskuen pertsona guztixei. Horrelako erantzunak, aurrera begira, lanian jarraiketako inddarra eta gogua emuten doskue-eta!!!

HOTZ OÑATIko partaidien aldetik, milla esker Oñati, **LAGUNKETAN LAGUNKETIAGATIK!!**



Monoteismo handietako testuak hausnarketa gai

Tradizio espiritualetako testu fundatzaileen berrirakurketa egiteko ikastaroa antolatu du Agora elkarteak Oñatin. Gaurko mundu konplexurako argi-printzak bilatzea da helburua.

'Tradizio espiritual nagusietako testu fundatzaileen berrirakurketa' izenburua duen ikastaroa antolatu du *Agora* elkarteak, *Ereitten* fundazioa eta *Gune* elkartearekin batera.

Ezagutza zientifikoaren nahiz teknologia berrien garapena eta globalizazioa direla medio, aro-aldaketa sakon batean murgilduak gaudenontzat argi-printzak aurkitzea da ikastaroaren helburua.

Eta galdera da: aurki al daiteke duela milaka urteko idazki zaharretan gure mundu konplexu eta aldakor honetarako ezer baliagarririk? Ikastaroaren antolatzaileek baietz uste dute, baina funtsezko baldintza batekin: gaurko munduan eta gure kulturaren ulergarri eta inspiratzaile izango den irakurketa egitea. Eta horixe da ikastaroaren helburua: testu inspiratzaile horien irakurketa berrirako irizpideak ematea, modu erraz eta sinplean.



Joxe Arregi teologian doktoreak zuzentzen du ikastaroa

Asmo horretan, azken 3.000 eta 5.000 urteetako historian gehien irakurri diren eta kultura handiak gehien markatu dituzten liburuen ur sakonetan murgilduko dira.

Aurtengo ikasturtean tradizio monoteistetako (judaismoa, kristautasuna eta islama) testuak jorratuko dituzte, eta hurrengo ikasturtean (2019-2020) ekialdeko testuekin jarraituko dute (hinduismoa, budismoa, konfuzionismoa eta taoismoa).

Aurtengo aurreneko hiru saioak egin dituzte jada, *Biblia*, *Talmuda* eta *Itun Berriaren* inguruan, baina oraindik beste hiru gelditzen dira, behean adierazten den moduan.

Hileko azken larunbatetan dira saioak (9:30-18:30) Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean (bazkaria ere bertan). Saio irekiak dira, interesa duten herritar guztientzat, baina aurrez izena eman behar da: tesfundatzaileak@agora21.eus helbidean.

HURRENGO SAIOAK

► Otsailak 23

Erreforma protestanteetako idazkiak. Luteroren *91 tesiak*.

► Martxoak 30

Islama. *Koranaren* aurkezpen laburra.

► Maiatzak 25

Sufismoaren eta Yaludin Rumiren aurkezpena. *Barneko liburua*.

Informazioa eta izen-ematea: 943718272 / 688824836 (Juankar Olaeta) edo 665720288 (Joxe Arregi)



caravanas



oñate



• GALDARAGINTZA - CALDERERIA
Otaui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Otaui zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Xaukena xauk; bai? Ez?

Inazio Arregi Gordoa

R. Altunaren Slang artikulua irakurrita (Kontzejupetik 290 zk.) kaleko erregistroaren eta hizkuntza traketsaren arteko mugak zeintzu diren ez dut garbi ikusten

Adibidez, *alabari ikastolara eruan xat* esatea slang da ala euskañol hutsa? Inguruko hizkuntzetan espainierak bakarrik erabiltzen duen egitura da. Euskaraz *Alaba ikastolara eruan dot* esan beharko genuke. Ingelesezt *I have taken my daughter to (the)ikastola* edo frantsesezt *J'ai emmené ma fille a l'ikastola*. "A mí", españolezt bakarrik erabiltzen da eta hau da oñatiar askok erabiltzen duten modua euskaraz egiterakoan: eruan xat eruan dot-en ordezt eta ondo egiten dutelakoan gainera. Slang? Euskañola?

Etxuat uste etorriko dokenik, esaldi okerra dela irakur genezake Oñatiko euskaria liburuaren 106. orrialdean eta era berean esan genezake *Xaukena xauk* esaldi okerra dela.

Zer esan *gura* aditzari –ago atzizkia erantsiz gurago esanordezt zer preferitzen dozu galdetxezt? Ez al da euskararen ezaugarri eta bereizgarrietako bati (deklinabide eta atzizkien erabilpenari) bete betean egindako eraso?

Zerrenda amai gabea osa genezake.

Hizkuntza guztiak eten gabeko eboluzio azkarrean ari dira egoera berriei erantzun beharra dutelako komunikazio tresna baliagarri izatekotan, baina beti ere berezkoak dituzten ezaugarri eta bereizgarriak gordez.

Nireztat ez da berdin, *mutikua! Bajau pertsiana eta zerrau bentania* esatea (lehenago entzuten zen), edo berezitasun eta ezuagarri funtsezkoak, aditz eta deklinabide aberatsak edota esaldi-egiturak eta doinuak galtzea. Esaldi hau onargarria gertatzen zait. Aurreko adibide guztiak trakeskeriaren eredu.

Euskara txarrena hitz egiten ez dena dela esan ohi da. Hizkuntza gutxiagotuen kontsolamendua, hizkuntza nagusien kezka beste bat baita. Hiztunen kopuruan aurreratu dugu. Hizkuntzaren kalitatean berriz atzera egin dugu, etxeko transmisioan kale egin dugulako eta oker horiek zuzentzeko adinako gaitasunik ez duelako izan hezkuntza sistemak.

Bizitzan gauza guztiak ikasten dira eta hizkuntzak ere bai. Etengabe ikasteko eta hobetzeko aukerak ditugu. Jarrai dezagun eginbide horretan eta hizkuntza menderatuta hitz egin dezagun slanga edo dena delakoa. Baina jakinik zertan ari garen, bestela Estatu Batuetako espainiera hitzunezt bezala buka genezake, *Tinajera muerta bacuando carpeta*

edo antzekoak esaten, baina euskaraz.

Adeitasunezt.

Aski da hostia!

Xabier Etxebarria eta Mikel Garai, Antixena Gaztetxeo asanbladaren izenean

Gabon zaharretan gaztetxean egin genuen jaialdiko turnotik iratzarri berri ginela iritsi zitzaizkigun lehen berriak *watsapezt*, polizia sartu omen da gaztetxera, hainbat atxilotu egon dira, eta garunera nahiko odol iristen ez zitzaigula flipatzen hasi ginen. "Oñatin? Guk itxi genuen gaztetxea baina? Ez, Gasteizen".

Eta urtarillaren 1ean hasi ginenetik gaur eguneraino, *teleberri* guztietan gutaz hitz egiten ari dira, baina inork ez digu ezer galdetu (Berri Txarrakek halako zerbait abesten du, ez?). Gasteizen hasi, berriz Gasteizen beste geldyadi bat (Alde Zaharreko beste aldean, Talkan), Donostian Kijera, eta Iruñean Maravillas. Hainbat izen borroerentzat, Urtaran, Barkos edo Goia. Txakurren koilar kolorea ere anitza, urdinak, gorriak, eta... munipek zein kolore dute?

Urtea hasteko hostiak, mehatxuak, isunak, atxilotetak eta kriminalizazioa gaztetxeentzat. Baina horren gainetik merezi du, merezi du antolatatu, asanbladetara joan eta gaztetxean gauzak egitea, harreman

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Gorenean erreferentzia

📷 Oñatiko bi erreferentzia puntu nagusi, enkuadre berean sartuta dakartza hile honetako argazkiak. Herri-gunean edo mendian, baina biak ala biak, gorenean. Herriko erreferentzia garrantzitsu dira aspaldidanik plaza alboko kanpantorrea eta Aloña bezala ezagutzen dugun *Gorgomendi (1.238 m.)* tontorra.



IXMAEL RUEDA

modu berriak erakitzea, inguratzen gaituen errealitatea zalantzan jartzea, mundu gris hau koloreztatzea. Eta hainbati izorratzen badie ere, horretan jarraituko dugu.

'Lope' filma gaztelerazko azpitoluekin

Euskadiko aretoetan hainbat emanaldi egin ostean, sarean dago ikusgai orain Oñatiko LPM taldearen 'Lope' filma.

Gainera, nahi izanez gero, gaztelerazko azpitoluekin ikusteko aukera ere badago Youtuben.

Txirrinkaren azken bira

Aitor Ugalde, Txirrinkako kideen izenean

Txirrinkak birak emateari utzi dio. Badira 18 urte eguneroko joan-etorriak bizikletaz egin nahi eta horretarako zailtasunak topatzen genituen hainbat herritar elkartu eta TXIRRINKA sortu genuela egoerari aurre egin nahian, taldeari izena emateko Oñatin gupila esateko erabiltzen den hitza hartuz. Orduan hasi zen gure txirrinka bueltak ematen eta gaur arterainoko bidea egin du.

Ibilbide horretan egindakoen zerrenda aipatu genezake: bidegorriak eskatzeko protestak, bizikleta erabiltzen dutenak saritzeko gosariak, hitzaldiak, mahainguruak, hainbat leku ezagutzeko irteerak Natur Eskolako lagun jakintzarekin aberastuak, bultzada eta animoa eman diguten bazkide talde ederra ere izan dugu.

Guzti horrekin gauzak asko aldatu dira taldea sortu zenetik gaur egunera arte, onerako: bizikletaren erabilera asko handitu da eta oso jende desberdinak erabiltzen du, bidegorriak dauzkagu, kirola egiteko tresna izateaz gain herri barruko mugimenduetarako tresna moduan ere hartzen da orain bizikleta, bizikleta mota desberdinak ere ikusten dira, argidunak, euritarako prestatuak....

Baina TXIRRINKAK ez du bere bidea amaitu hori dena lortu delako. Orain ere zeregin asko ikusten ditugu: bizikletaren erabilera egokia bilatzea (abiadura, oinezkoen lekuak errespetatzea...), oinezko, bizikletadun eta autoen arteko elkarbizitza hobetzea, ibilgailu motordunek bizikletentzako bideak hartzen dituztenean salatzea, bizikleta bide berriak sortzea eta agintariari gogoraraztea ez dela nahikoa orain arte egindakoarekin, eta badagoela zer hobetu eta aurrerantzean ere hobetu eta zaindu beharreko kontua izango dela.

Zeregina badago, baina gure txirrinka geratu egin da, bueltak emanarazteko behar den indarra agortu zaigulako. Penarekin egiteke geratu denagatik, baina egindakoarekin pozik. Gure TXIRRINKA honaino heldu da, ibilbide bat egin du eta hor geratzen da, inor bera berriro bueltaka jartzeko gogoarekin agertu daitekeen esperantza txikiarekin, eta egindakoaz harro.

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

IRAZOLA Okindegia	
Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserniko agia, egurrezko labean egina	
Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754	



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

2018. urtea ekintzaz beterik bukatu genuen Gaztelekuan zein Ludotekan! Kuboan, Topalekuan eta Ludotekan gabonetako ekintza bereziak izan genituen. Horretaz gain hainbat irteera eta txapelketa burutu genituen.

2019ko martxa hartu ondoren, hemendik aurrera ere ekintza, proiektu, irteera... eta abarrekin jarraitzeko asmoa dugu. Esaterako, momentuz, kuboan haurrek antolatutako ondorengoko ekintzak burutuko dira datozen hilabeteotan: show talent-a (otsailak 17), mendi irteera eta sukaldaritza txapelketa. Topalekuan, berriz, proiektu hauek eramango ditugu aurrera: inspira steam (DBH 2.mailako neska-mutiko talde batekin martxotik apirilera arte), DBH4koekin urte eta erdi daramagun proiektuari bukaera emateko irteera (Lisboa, ekainak 24-28) eta Erasmus+ programa gauzatzeko asmoa daukagu Batxilergoekin (irailean).

Bi zerbitzu hauetan, hemendik kurtso amaierara arte haur eta gazteen interesetatik sortutako ekintza, proiektu, irteera...etab., burutzeko inoiz baino prestuago gaude! Emango dugu hauen berri!

Txaloka Udal Ludotekan berriz, esan bezala, gabonetako ekintzekin 2018ko urteari agur esan genion. Hiru egunetan material desberdina erabiliz (kartoia, tenperak, kola beroa, irina, ura...) eskulan desberdinak egiteko aukera izan genuen alde batetik eta bestetik, ludotekak dituen txoko desberdinez (ipuin txokoa, eraikuntza txokoa, motrizitate txokoa...) gozatzeko aukera izan genuen. 2019a prestatzen hasi gara eta aurten ere Ludoteka ibiltariarekin emango diogu hasiera. Aurreko urteko arrakasta ikusita Otsailak 16an, Pizza ekologiko tailerra egingo dugu San-Lorentzo edo Olakua auzoan 10:30-13:30etara. Sukaldatzea nahi ez duenarentzat eta etxeko txikientzat hainbat material ere eramango dugu. Aurten ere ludoteka ibiltariak sorprearen bat edo beste ekarriko ditu. Bestetik ere, ludotekan familientzako ekintzak izango ditugu, beraz, adi egon gure eskaintzei!!

AGENDA: 19.02.10 Manez eta Kobreak taldearen kontzertua gaztelekuan (12:30); sarrera 5€. | 19.02.15 Talent Show kuboan (17:00-20:00). | 19.02.16 Modus operandi eta Nomadak taldeen kontzertua gaztelekuan (19:30); sarrera 6€ (aurrez) 8€ (takilan). | 19.02.16 Pizza tailerra, Eltzian edo Olakuako dorrean -zehazteke- (10:30).



Erreskatea(k)



Ez behar eta tragedia batzuen inguruan, oraingo kasuan haur batena (Julen), sarritan eraikitzen diren ikuskizun mediatikoak ez dira gaurkoak ez eta hemengoak soilik, baina gogoeta pare bat sortarazten dute.

Alde batetik, komunikabide enpresek, negozioa eta publizitatea egiteko eskrupulu eza noraino eraman ditzaketen nabarmentzen du. Ikusle go/entzulego ratioak igo nahian, ez dute inongo erreparorik minarekin eta sufrimenduarekin zirko mediatiko morbosoen egiteko. Bestalde, komunikabide horiek ezer gutxi esan dute erreskatea



Luis Guridi

iraun duen denboran, agian dozenaka lagun, eta seguruenik Julenen adineko haurrak, hil egin direla, inongo laguntzarik gabe, itxaso gordinaren erdian, Europako kostaldera heldu nahian. Eta esaten dut beharbada, negu gogor honetan itsasoan gertatzen ari denaren lehen eskuko informaziorik ez dagoelako.

Badakigu Afrikako iparraldeko kostaldetik itsasoratzen jarraitzen dutela, baina ez zenbat diren, ez eta beraien egoera; izan ere, zirku mediatikoa bultzatzen den bitartean, Mediterraneoan erreskaterako prest dauden itsasontzien -*Aita Mari* eta *Open Arms*- itsasoratzea oztopatzen da arrazoi burokratikoak eta arau zorrotzak direla medio. Ez dute tragediaren lekukorik nahi. Egun horietan, besteak beste Greziako edo Libanoko baldintza gabeko errefuxiatu-esparruetan, Julenen adineko ehunka haur eguraldi txarrari eusten ari dira, Europako gobernuak Europar Batasunean

errefuxiatu horiei, baldintza duinetan, sartzea ezeztatzen dietelako.

Herralde pobretuenetan, nahiz Europa oparoan, desberdintasun sozialak handitzen diren heinean, gatazkak areagotuko dira eta ezingo dute jendea itsasoratzea ekidin. Gainera, desberdintasun sozial horiek Europako gizarteetan jarrera xenofoboak sustatzeko baldintzak sortarazten ari dira eta ez dakigu horrek nora eramango gaituen.

Maiatzaren amaieran egingo diren Europako hauteskundeetan, ziurrenik, migrazio-politikak eztabaida politikoaren erdigunean egongo dira. Muturreko eskuin-taldeak, arrazista eta xenofoboak, autoritarioak eta faxistak, giza eskubideen ukatzaileak, Europako gobernuetan eta erakundeetan jadanik daudenak batzuk, politika gogorragoak bultzatuko dituzte. Gu ere ez gaude salbu. ■

Pantaila baten aurrean



Aurreko asteartean *Pasapalabra*-n, Fran, 29 urteko gazteak, 1.542.000 euroko botea eraman zuen. Zuzenean ikusten ari ginenok, irabazi berri zuen dirutza baino Franek, azkenean irabazi izanaz poztu ginen. Ia-ia Franek hainako emozioez batuta, irrikaz ikusi genuen nola *Renard* erantzuna ematean, aurkezleak zuzentzat jo eta, 168 programaren ostean, irabazle bihurtu zen.

Baina, nola liteke, pertsonalki ezagutu ere egiten ez dugun



Amaia Aranzeta

batek hainbesteko enpatia sortzea? Zer dela eta atxikitzen gara emozionalki, pantaila bat besterik ez den objektu batera? Erantzuna erreza da.

Telebistak, lotura berezi bat eskaintzen du ikuslearekin. Ez dira soilik, kontatzen diren istorioak ikuslearengan sentsazio aldakor eta ugariak sortzen dituztenak. Gizakiak, enpatiaren bidez, besteekiko lotura emozionala identifikatzen eta garatzen daki eta horregatik, pantaila baten aurrean bada ere, bertan ikusi eta sentitzen denarekin bat egiten du. Ikusle pasiboak gara, baina pasibitate hori alde batera utziz, ikusle aktiboan bilakatzen gara horrek dakarren zama emozional eta psikologikoa gain hartuz.

Telebista, pantaila bat

besterik ez da. Baina, momentu askotan, gizaki garena sentiarazten gaitu. Batzuen ustez, marketing politiken erantzun bat besterik ez da ikusle gehiago erakartze aldera. Eta, egia da, marketing-a eta politikek telebistan ikusten dugun programazio ia oso baldintzatzen dutela. Hala ere, telebista-kateetako zuzendariak, oso ondo dakite gizakion sentimentu eta emozioak aintzat hartuz, gure bihotzetaraino iristen diren pertsonaiez momentu guzti horiek betetzen.

Beraz, pantaila batean batzen diren istorio eta pertsonak helarazten diguten enpatia hura, erreala al da edo, aldiz, marketing-ak diseinatutako baldintzapeko erreakzio bat? ■



Berdura PLAZIA

larunbatero (8:00-14:00)

HILE HONETAKO PRODUKTU AIPAGARRIAK



MARRUBIAK

Azken asteotan marrubien kolore gorriak eman digu atentzioa. Huelvatik ekarritako ale eder askoak.

3,95€ KILOA



PORRUAK

Euriekin ase eginda daude baratzeak, baina hala ere porru, aza, kalabaza.. ederrak aurki daitezke azokan.

1,50€ KILOA

Zenbat eta hurragokoa orduan eta gozoagoa

MIKEL URIBEETXEBERRIA

IRAZOLA OKINDEGIA

Ogia saldu eta saldu ibili ohi da Mikel larunbateroko azokan. "Bai, azokara datorren jende askok ogia erosteko ohitura hartu du, eta gustura nago bai".

Zazpi urte darama azokara etortzen, eta, egiari zor, tripa-zorriak dantzan jartzeko moduko ogi puska ederrez beteta eduki ohi du postua. "Ogi txuria, hiru motatako integrala, arto-ogia, txori-panak eta etxean egindako



"Ostiral goizetan ere saltzen dugu ogia azokako sotoan, arrandegi ondoan"

madalena eta bizkotxoak saltzen ditugu. Ogi rallaua, basterriko arrautzak eta ezta ere izaten ditugu".

Orain, gainera, larunbatetako azokan ez ezik, ostiral goizetan ere hasi da ogia saltzen azokako sotoan, arrandegiaren ondoko lokalean. Gainerakoan, etxeko okindegian (Larraña auzoa, 44) saltzen dute ogia, ostiraletan (goiz eta arratsalde) eta larunbat eta igande goizetan.

Oñatiko azoka nahiko ondo ikusten du Mikelek. Jende gaztea ere gero eta gehiago omen dabil, eta begi onez ikusten ditu azoka bultzatzeko hartutako neurriak.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

'Bulkada berrien garaia da!' dinamika aurkeztu dute

Duela 40 urte Ezker Abertzalearen baitako JARRAI gazte antolakuntzarako lehen espazioa sortu zen, gazteen problematika propioari erantzun eta Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatzeko helburuarekin.

Harrezkero, Oñatin bertan ere militante ugari batu izan dira, belaunaldiz belaunaldi, Jarrai, Haika, Segi eta Ernai gazte antolakundeetan. Eta horietako ordezkari bat urtarrilaren 26an batu zen 'Bulkada berrien garaia da!' dinamika aurkezteko. Hiru helburu dituen ekimena da: gazte antolakuntzaren memoria jasotzea; gazte borrokan ibilitako kide ezberdinen arteko zubiak eraiki eta indartzea; eta belaunaldi berriei antolakuntza eta borrokarako espazio berriak irekitzea.

Ildo horretan, urtarrilean hainbat ekitaldi burutu dituzte (tertuliak, bazkaria...). Apirilaren 19tik 23ra Euskal Herri mailako Gazte Topagune erraldoia egingo da Lemoan, eta bertan parte hartzeko deia luzatu diete Oñatiko gazteei.



JARRAIren sortzaileetako bat izan zen Susana Arregi ere oroitu zuten ekitaldian



Apirilaren 19tik 23ra Lemoan egingo den Euskal Herriko Gazte Topagune erraldoian parte hartzea animatu nahi dute herritar oro



Martxoaren 8ko greba antolatzen hasi dira emakumeak

'Heteropatriarkatu kapitalistari planto!' lelopean egun osoko greba feminista dago deituta martxoaren 8rako, eta Oñatiko Sare Feministak deituta, hainbat emakume lanean hasita daude egun horretara begira. Otsaileko astearte guztietan bilduko dira Eltzia Topagunean, arratsaldeko 18:00etan, M8ra begira herria nola girotu, zein mezu eta nola transmititu, eta ekintza konkretuak prestatu eta antolatzeko. Bilerak irekiak dira eta herriko emakume guztiak daude gonbidatuta.

Oñatiko Bertsolari Txapelketa jokatu da udaberrian

Bost urteren ostean aurrean jokatu da berriz ere Oñatiko Bertsolari Txapelketa, zortzigarrena, Txinparta Bertso Eskolak antolatuta. Martxoaren amaieran izango dira kanporaketak eta finala apirilaren 13an, Korrika herritik pasatzen den egun berean. Andoni Goitia da azken txapelduna. **GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO TXAPELKETA.** Hiru oñatiarrek (Aitor Tatiegi, Xabier Agirre eta Bittor Zubiagirre) parte hartuko dute eskolarteko 39. bat-bateko txapelketan. Tatiegik otsailaren 15ean kantatuko du Ibarran, Agirrek Orion (martxoak 15) eta Zubiagirrek Oñatin (martxoak 22).

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Mendi eskizaleen paradisu

- ▶ **Buetraitz eta Artzanburu** inguruek baldintza ederrak eskaintzen dituzte mendi eskia praktikatzeko.
- ▶ Gero eta eskiatzaile gehiago erakartzen dute.

Kosta zaio aurten elurra egitea, baina mendiak zuritzearekin batera inurriak bezala agertu dira mendi eskizaleak Aloña eta Artzanburu arteko tontor inguruetan. Izan ere, azken bost-sei urteetan gora egin du nabarmen mendiko eskizaleen sunak. Gero eta gehiago dira eski pistetako jende pilaketa handietatik aldendu eta trabesiara jotzen dutenak, paisaia ederrez eta, batez ere, mendiak eskaintzen duen lasaitasunaz gozatzeko helburuarekin.

Eta horietako askok, gero eta gehiagok, Aloña eta Urbia arteko mendi inguruetara jotzen dute eski gosea asetzeko. "Oñatitik ez ezik, kanpotik ere jende

asko etortzen da, bai. Sare sozialak direla eta, sekretu gutxi dago gaur egun, eta azken urteotan jende askok deskubritu ditu inguru hauek. Duela urte gutxi lau katu ibiltzen ginen, eta gaur egun ez da harrizkoa Buetraitz gainean berrogei lagun elkartzea" dio Iker Laskurain mendi eskizale oñatiarrak. "Mendi inguru hauetan aurpegi edo isurialde ezberdinak daude; beraz, elurrak iparraldetik edo hegoaldetik jo, beti dago mendi magalen bat eskiatzeko moduan. Elur asko pilatzen da Buetraitz eta Artzanburu arteko katiluan eta ondo mantentzen da". Iaz, esaterako, 50 eski egun egin ahal izan ziren Oñatin.

Denboraz justu samar ibiliz gero, Bue-

traitzen edo Eskista aldean bizpahiru igoera egitea izaten da ohikoena. Bestela, Urbia aldean ere aukera ugari daude (Arbelaitz, Enaitz, Arriuridin...) pendiz handirik ez badute ere. Trebeagoak direnentzat, Aizkorriko Kanal Haundiko jeitsiera dago, baina hemen maila ona behar da, pendiz handiak baitaude. Arbelar alderako jeitsiera ere polita da, basoan barrena, baina elur asko dagoenean.

GAUEZ ESKIATZEN

Luxua da etxean bertan eskiatu ahal izatea, baina, jakina, hemen elurra sarri egiten ez duenez, dagoenean aprobetxatu behar. Horregatik, askotan, eguna argitu aurretik ibili behar izaten dute eskizale amorratuek. "Bai, goizeko 5etan joaten gara, ekinalditxo egin eta 8,30etarako lanera" azaldu digu Laskurainek.

Ordu horietan egoten



918

MENDI SAILEKO BAZKIDEEK
DUTE MENDI ESKIKO ESTALDURA



260

BAZKIDEEK DUTE ESKI
ALPINOKO ESTALDURA

IKER LASKURAIN

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



«Gaur egun ez da harritzekoa Buetraitz gainean 40 eskiatzaile elkartzea»

«Buetraitz eta Artzanburu arteko katiluan elur asko pilatzen da, eta ondo mantentzen da. Iaz 50 bat eski egun egin ahal izan ziren Oñatin»

IKER LASKURAIN
Eskiatzailea

omen da elurrik onena. "Hemen, normalean, itsaso aldetik etortzen da elurra, eta egunean zehar umeldu egiten da. Goizean goiz, aldiz, elur hautsa egoten da askotan, eguzkiak berotu barik, elurra ari dela..."

Arreta berezia eskatzen du, noski, ordu txiki horietan eskiatzeak, baina inguru hauek ondo ezagutzen dituzte, eta kopetako argia lagun, ez omen dute aparteko zailtasunik izaten. "Ahal izanez gero, geu ere egunez ibiliko ginatete, baina lan ordutegiak uzten ez badizu... Gainera, gabaz eskiatzeak badu bere xarma; animaliak (erbiak, azeriak tarteka...) ikusten dira, eta benetakoagoa da, naturalagoa, basatiagoa. Egunsentiaren unea ere oso polita izaten da. Beste batzuetan arratsaldean joaten gara, eta ilusentiko unea ere ederra izaten da".

Kirol bezala, jarduera fisiko bete-betea eta oso exigentea da mendi-eskia. Baina, batez ere, bake sentazioa azpimarratu digu Laskurainek. "Mendian egoten den isiltasunak sekulako bakea ematen du". ■



SEGURTASUN GOMENDIOAK

Mendi eskia ez da beste edozein kirol baino arriskuetsuagoa. Kontua da, mendiko baldintzek (eguraldia, irisgarritasun eza...) oztopo bihurtzen direla. Horregatik, trabesia egiterakoan hartu beharreko segurtasun neurriak gogorarazi dizkigu Laskurainek. "Nondik nora ibiliko zaren etxean esatea, mugikorraren GPSa edukitzea, eta motxilan manta termikoa, zira bat, eskularruak eta frontalarentzako ordezko pilak eramatea, badaezpada".

Elur-jausien inguruko formazioa ere ez dago soberan. "Inguru hauetan ez dago pendiz handirik, eta elur-jauzi arriskua ez da handia, baina Aloñako iparraldeko aurpegian tarteka gertatzen dira, elur asko pilatzen denean, eta kontuz ibili behar da".

MENDI IRTEERA / OTSAILAK 17

TOLOÑO MENDIKATEA

Errioxa eta Araba banatzen dituen Toloño mendikatean egingo da Aloña Mendiren otsaileko irteera. Samaniegotik abiatuta, Urizaharra (Herrera) mendatearen inguruan dagoen Peña San León (1.223m.) tontorra igoko dute. Inguruan dagoen kobazuloa ere bisitatuko dute. Baso artetik jetsita, Urizaharra herrian amaituko da ibilaldia. Guztira, 15 km. eta 800 m.-ko desnibela. Zailtasun barik. Irteera, goizeko 7etan, postetxe parean. Izena emateko (10€) azken eguna, otsailak 14, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean.



Urtarrileko irteeran, Oregiko mugarran ateratako argazkia

Oñatiko ordezkariak zabala Master Cup txapelketan

Azken urteotan gora egin du nabarmen pilotazaletasunak herriko emakumeen artean. Horren lekuko, Oñati delata binakako Master Cup txapelketara ordezkari gehien (12 pilotari) aurkeztu duen herria, Bartzelonarekin batera. Lehenengo bi kanporaketak jokatu ostean, Maialen Etxegarai eta Uxue Osés gazteek jarraitzen dute aurrera. Otsailaren 10ean jokatu dute Sodupen.



OTSAILAK 17, IGANDEA, FORUENPLAZAN, 12:00

URREZKO AIZKORA OÑATIN

Otsailaren 17an herri kirol jaialdi bikainaz gozatzeko aukera izango dugu. Urrezko Aizkora Txapelketako bi finalerdi jokatu dira Foruen plazan (euria bada, Zubikoa kiroldegian) eguerdiko 12etan hasita.



Gizonezkoen binakako txapelketan Xabier Orbegozo 'Arria V'- Jon Rekondo eta Iker Vicente-Ruben Saralegi ariko dira nor baino nor. Emakumezkoen binakako txapelketan Itxaso Onsalo eta Irati Astondoa izango dira aurrez aurre. Bestalde, harrija-sotze txapelketan Xabier Aranburu 'Busta' ariko da 175k.-ko errektangularra eta 150k.-ko kubikoarekin. Sarrera doan.

Joan den asteburuan egin zituzten grabazio lanak eta laster izango dugu kalean Arantzazu Saiz piano-jotzailea buru duen *Aran Saiz Trio* hirukotearen lehen diskoa. Emaizaren zain, urduri samar baina oso pozik dagoela aitortu digu musikariak. “Hauxe da beti egin nahi izan dudana; nire abestiak sortu, entsaiatu, diskoa grabatu... Eta, gainera, Hasier eta Joseba bezalako bi musikari handirekin egin ahal izatea, ametsa betetzea bezalakoa da niretzat”.

Bidean du izena hirukotearen estreineko lanak, eta Arantzazuk berak sortutako zortzi abesti biltzen ditu. Denak instrumentalak.

Estiloaz galdetuta, ez omen da erraza etiketa bat jartzea. Pianoa oinarrian, bateria eta baxua lagun, klasikoa eta jazzaren artean dabilen musika dela esan digu Aranek. “Erraz entzuteko melodia eta harmoniak daude oinarrian baina jazz ikutua ere badute, inprobisaziorako tarteak utziz”.

Formazio klasikoa du Aranek. Donostiako kontserbatorioan egin zituen goi mailako ikasketak, baina jazz musika ere gustuko du. Donostiako *Jazzle* eta Bartzelonako *Taller de Musics* eskoletan ikasia da. “Beti gustatu izan zait jazz musikak proposatzen duen ‘jolasa’, instrumentu ezberdinen arteko komunikazioa. Abestia bera izanik ere, beti da ezberdina, eta oso dibertigarria iruditzen zait; freskotasuna ematen du, bizirik mantentzen du musika, eta horrek asko erakartzen nau. Horregatik jotzen dut pittin bat jazzera, errespetu guztiz betiere, begirune handia baitiet benetako jazz musikariei”.

Arishai Cohen, Brad Mehlan eta Keith Jarrett dira bere erreferente nagusiak. “Melodia erakargarriak erabiltzen



Aran Saiz Trio taldeak lehen diskoa grabatu du

- ▶ **Arantzazu Saiz** oñatiarraren zortzi abesti biltzen ditu *Bidean* diskoak, eta musika klasikoa du oinarrian, jazz ikutuekin
- ▶ **Hasier Oleaga** (bateria) eta **Joseba Loinez** (baxua) ditu lagun proiektu berri honetan pianujole oñatiarrak



Bidean diskoaren azala

dituzte oinarrian, eta gero jazz terrenora eramaten. Eta ni ere horixe egiten saiatu naiz, neure erara. Baina esan bezala, oinarrian erraz entzuteko moduko musika da”.

‘ARAN SAIZ TRIO’

Ganbara abesbatza, Iker Martinez eta Bartzelonako beste kantautore batzuen diskoetan kolaboratu izan du Aranek, baina hauxe du bere-berea den aurreneko lana, eta bi musikari handiz inguratuta dator. “Pribilegio handia da niretzat. Nire nortasunaren bila ari naiz oraindik nire konposizioetan, eta halako bi musi-

kariren babesa eta laguntza izatea oso eskertzekoa da.”.

Diskoa grabatzeaz haratago, taldeari jarraipena ematea da asmoa, Aranek azaldu digunez. “Bai, noski. Diskoa ateratzea polita da, baina batez ere entseguetan eta aurreko prozesu guztian disfrutatzen dut nik. Diskoa gure aurkezpen-lana izango da, eta gure nahia da hori



«Musikarekin jolas egitea gustatzen zait, eta horregatik jotzen dut pittin bat jazzera. Baina oinarrian musika klasikoa dago; erraz entzuteko moduko melodiak»

«Nire nortasunaren bila ari naiz oraindik konposizioetan, eta Hasier nahiz Joseba bezalako musikarien babesa eta laguntza izatea oso eskertzekoa da»

ARANTZAZU SAIZ
MARKULETA

mugitzea eta zuzeneko emaldiak egitea”.

Beasaingo *Pottoko* estudioan grabatu dute diskoa, Fredy Peláez teknikariaren laguntzarekin, eta lehenbait lehen ateratzea da Aranen asmoa. Oraindik ez daki nola banatuko duen, baina Oñatiko ohiko denda eta tabernetan egongo omen da eskuragai. Herrian bertan aurkezpen kontzertu bat ematea ere gustatuko litzaioke, baina oraindik ez dago datarik. ■

Otsailak 22, ostirala, udal liburutegian, 19:00

Saio linbikoa Olatz Salvadorekin

➔ Literatura, musika eta emozioak uztartuz

Olatz Salvador (Donostia, 1990) kantautoreak irekiko ditu ikasturte honetako Saio Linbikoak udal liburutegian. Iaz jarri zuten abian ekimen berri hau, literatura, musika eta emozioak uztartzeko helburuarekin. Musikariak, formato akustikoan betiere, hainbat kanta abestuko ditu gure oinarritzko emozioetan (poztasuna, tristezia, beldurra, nahigabea...) eragiteko asmoz. Aldi berean, musikariak bere ibilbidean zehar izan dituen erreferente literario eta musikalak partekatuko ditu entzuleekin.

Olatz Salvador musikaria izango da ikasturte honetako lehen saio linbikoko protagonista. *Skakeitan* taldean aritua, 2014az geroztik bakarlari gisa ari da, gitarra lagun, berak idatzitako abestiak kantatuz. Emakumeen ikusgarritasuna sustatzeko sortutako Euskal Herriko musikarien sarean ere parte hartzen du.



Otsailak 28, ostirala, udal liburutegian, 19:00

Ipuin kontaketa, 6-9 urtekoentzat

Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan, Ixabel Agirresarobek 6 eta 9 urte arteko neska-mutikoei zuzendutako ipuin kontaketa saioa eskainiko du otsailaren 28an. Gonbidapenak hilaren 18tik aurrera liburutegian.



Otsailak 21, osteguna, udal euskaltegian, 18:00etan

Felipe Uriarterekin solasean

➔ Koskulak(7.028 m.) mendia eta Zetaren Bidea

2008ko uztailan euskal espedizio batek *Koskulak* mendia eskalatu zuen. Gailurra lortzen zuen bosgarren espedizioa zen (aurreko laurak errusiarrek ziren) eta bertan parte hartu zuen Felipe Uriarte mendizaleak hitz egingo du orduko bizipenez.

ZETAREN BIDEA *Koskulak* mendia *Kunlun*

mendilerroan dago, *XinJiang-en* (Txina), Zetaren Bidearen hegoaldeko adarrean. Txinako hiriburutik Kashgarreraino joateko erabiltzen zen bidea da hau. *Kashgar* eta *Pamir*-eko mendiak igaro ahal izateko, gameluak utzi eta zaldiz abiatzen ziren Istanbul edo Damaskoraino. Horrela, *Kashgar* hiri estrategiko bilakatu zen Zetaren Bidean.

Kashgar hiria eta bertan egiten den abereen merkatua eta bazarra ezagutzeko aukera izango dugu Uriarteren eskutik. Gaur egun arazo latzak sufritzen ari da XinJiang eskualdea, Uigur Erkidego Autonomoan, Txinako hego-mendebaldean.

Udal euskaltegiak antolatuta, herritar guztiei irekia.



Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripiak
- Ontziak
- Osasuna
- Etxebizitza
- Aurrezkia
- Laborantza

Helbidea: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu".

AMORANTE

Iban Urizar musikari eta artista elgoibartarraren kontzertua
12:30, Gaztetxea



INONDIK INORA

Umorea, poesia eta zuzeneko musika uztartzen dituen haur ikuskizuna
17:00, Santa Ana

MUSIKA

OTSAILAK 8 / 22:00
DISCIPULOS DE DIONISOS
Donostiako punk-rock taldea. *Pako tabernan.*

OTSAILAK 10 / 12:30
MANEZ ETA KOBREAK
Thierry Biscary (Kalakan) buru duen taldea Sarrera: 5€. *Gaztelekuan.*

OTSAILAK 15 / 22:00
ESKEAN KRISTO + SAIA GOIAT
Rock&roll eta rock gogorra Arratia eta Oñatiko taldeen eskutik. *Antixena gaztetxea.*

OTSAILAK 16 / 19:30
MODUS OPERANDI + NOMADAK
Iñaki Betagarriren talde berria eta Bergarako rock taldea. Sarrera: 8€. *Gaztelekua.*

OTSAILAK 17 / 12:45
MUSIKA BANDA
Oñatiko musika bandaren kontzertua. *Santa Ana.*

OTSAILAK 24 / 19:30
JOSÉ RAMIREZ
Costa Ricako blues estiloko gitarrajotzailea eta bere banda. *Itturri taberna.*

AGENDA

MARTXOAK 3
Diktaduraren hastapenetan fusilatua izan ziren Lauxeta eta Lorca idazleei buruzko ikuskizun literarioa, urrunekoak diruditen bi munduren arteko konexioa bilatzen duena
Antzerkia 20:00, Santa Ana (Sarrera, 10€)

ANTZERKIA

OTSAILAK 24 / 19:00
ANTZERKI SOLIDARIOA
Pake Lekuko Ikusi-Makusi taldearen 'Juzgado de Guardia' antzezlanaren (5€) Misio Taldeak Ginean duen proiektuaren alde. Sarrerak salgai aurrez otsailaren 20 eta 21ean Pake Lekun (18:30-20:00) eta taldean. *Santa Ana antzokia.*

HITZALDIAK

OTSAILAK 19 / 17:30
'MÁS ALLA DE LA SOLIDARIDAD'

'Elkartasunetik harago' (gaztelera) Joxean Larrañaga parrokoaren hitzaldia. *Pake Leku.*

LEHIAKETAK

'BIDEOKLIKA' LEHIAKETA
'Korrika-2019'ko Deba-goieneko batzordeak antolatuta. Korrikako kantuarekin minutu bateko (gutxienez) koreografia grabatu behar da taldean. Lanak aurkezteko epea: martxoak 21 (bideoklika@gmail.com). Saria: Irabazlearen herrian lekuko eramatea.

JAIALDIAK

OTSAILAK 28 / 18:30
OSTEGUN GIZEN
Inauteri jaia Pake Lekun. Otartekoa, edaria eta dantzaldia. Txartelak salgai otsailaren 21ean (18:00-20:00). Bazkideek 1€, gainerakoek 2€. Mozorrotuta joateko deia luzatu dute. *Pake Leku.*

BINGOA

OTSAILAK 19 / 17:00
BINGO SAIOA
Lagun Leku elkarteak antolatuta. *Eltzia.*

OUTLET

OTSAILAK 22-23
TXANDA-ren OUTLETa
Txanda elkarteko dendetan.

TXAPELKETAK

OTSAILAK 22 /
MUS TXAPELKETA
Gaztetxeak antolatuta. *Antixena gaztetxean.*

TAILERRAK

OTSAILAK 9 / 10:00
'TRX' INDAR ENTRENAMENDUA
Tailer teoriko-praktikoa. *Zubikoa kiroldegian.*

txiki txoko
Oñatiko hauteskola
Urte organ matrikulazio epeazabalik!
Olaquia, 19 • T. 943716405

BATUAK S.A.
Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50

MENDI ESKIA

OTSAILAK 16 - 17

PIC PEYREGET -ANAYET

Aloña Mendik antolatuta mendi eski zeharkaldia, Astun eta Formigal inguruan. Prezioa: 80€ bazkideek/100€ ez bazkideek (pentsio erdia eta gidaria barne) Izena emateko azken eguna: otsailak 12, Aloña Mendi elkarrean (asteazken iluntzetan 658712756 edo alona-mendi.mendi@gmail.com).

IKASTAROAK

OTSAILA - APIRILA

ARGAZKILARITZAKO HASTAPEN IKASTAROA

Ilunpetan argazki taldeak antolatuta otsailaren 11an hasi eta apirilaren 1era arte, astelehenero, 18.00tatik 19.30etara Argazkilaitza Hastapena Ikastaroa eskainiko da Eltzian. Parte hartzaileen artean adostutako larunbat batean egingo den saio praktikoa osatuko da astelehenetan eskeinitako den teoria.

Ikastaroaren helburu nagusia argazki kameraren funtzionamendu manuala ikastea izango da, behin aukera hau menperatuta argazki sortzaileagoak egiteko gaitasuna izateko.

Parte hartzeko ez ago argazkilaritzari buruzko eza-gutzarik behar. Irakaslea: Itziar Bastarrika Madina-beitia. Izen ematea: ilunpetan@gmail.com helbidean. Prezioa: 90€



Hileko gomendioa

Begirada artistikoa eta berri-tzailea Arrasateko Esperientzia Kooperatiboari buruz. Lankidetzako esperimentu bat da. Idazle ezagunak, ber-tsolariak, konpositoreak, letragileak elkar lanean sotutako liburua eta soinua banda.

Humanity At Music



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3

☎ 943 78 21 16

Urtarrilak 9, 10, 18, 19, 20, 28 eta 29.
Otsailak 6 eta 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1

☎ 943 78 01 22

Urtarrilak 11, 12, 13, 21, 22, 30, 31..

GARATE

Kale Barria 42

☎ 943 78 05 58

Urtarrilak 4, 5, 6, 14, 15, 23 eta 24.
Otsailak 1, 2 eta 3.

ULDAIN

Kale Barria 6

☎ 943 78 11 28

Urtarrilak 7, 8, 16, 17, 25, 26 eta 27.

ZINEA



Otsailak 7 - 11

ZINE KLUBA:

The Guilty

NAGUSIAK:

El vicio del poder

GAZTETXOAK:

El Grinch

Otsailak 21 - 25

ZINE KLUBA:

Un día más con vida

NAGUSIAK:

Green Book

GAZTETXOAK:

Spiderman: Un nuevo universo

Zine-kluba: Osteguna (20:00)

Nagusiak: Ostirala eta larunbata (22:30)
Ilgandea (19:30 eta 22:30)

Gaztetxoak: Larunbat eta Ilgandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Otsailak 14 - 18

ZINE KLUBA:

Un asunto de familia

NAGUSIAK:

Bajo el mismo techo

GAZTETXOAK:

Drabon Ball Super: Broly (euskaraz)



MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA SALGAI

Ugarkalde auzoko 8 zenbakian. Ate automatikoa eta 29m². Tel.: 652 735 405

KATU BAT AGERTU DA

Lezesarri auzoan.

Txuria eta laranja da.

Deitu: 667 915 590.



ETXEBIZITZA BILA

Oñatiko familia batek etxea alokairuan hartzeko behar du. Deitu: 666 741 493.


ODOL ATERALDIA

OTSAILAK 8 /

Enpresagintza fakultatean,
17:00-19:00

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

 Jerardo Elortza
eta Xabier Zelaia

OÑATI >

KALERIK
-
KALE



Zubikoa

San Juan Kalea (I)

Foruen enparantzatik oso hurrean egonda ere, garrantzi berezia eta handia eduki izan du Oñatiko historian **errebal-auzo-kale** honek. Erdi Aroko dokumentuetan apenas aipatzen den, baina XVI. mendetik aurrera sarritan agertzen zaigu **Zubikoa** gisa. Izen hori Antzuelas eta Ubao errekek bat egiten duten tokian dagoen zubitik (estalia gaur egun) zetorkion; hau da, luzaroan plazako beheko aldetik eskumara igarotzeko gainditu behar zen zubitik. Plaza Nagusiari buruzko ataletan azaldu genizkizuen tarte horretan zeuden eraikuntza eta zerbitzuen gaineko xehetasun batzuk: jesuiten eliza, era askotako eskolak, udal harategia, merkatua eta abar; egungo Pago Uso elkarte, Gaztelekua eta San Migel parrokiako klaustroaren inguruan kokatzen zirenak, alegia. Dena den, **auzoari aparteko nortasuna** emango zioten beste hainbat eraikin ere jaso ziren han: **Santa Anako komentua** eta **San Migel errota**, adibidez.

SANTA ANA ZUBIKOA

Horrela deitzen zitzaion 1509an **Arantzazutik kalera jaitsi ziren lau serorek** erosi zuten etxeari. Emakume haiek San Frantziskoren Hirugarren Ordenakoak ziren, Arantzazun egondako lehen urteetan **Juana Arriaran** oñatiarra burutzat zeukatenak. Hura hiltzean, etorri ziren Zubikoara, gizaldi askotan iraun zuen komentuaren jatorrizko oinarriak ezartzera, **Martin Mendizabal**

frantziskotarrak Santa Anari buruzko historia-liburuan (2002) adierazten digunez.

Zubikoako egoitza horretan lau mende t'erdi baino gehiago bizi izan ziren mojak, 1982an Garagaltza auzoko etxe berrira aldatu ziren arte. Pentsa dezakezue, denbora-tarte hain luzean **aldaketa ugari gertatu zitzaizkien Santa Anakoei**: hasieran serora soilak zirenak **klausurako lekaimeak bihurtu** zitzaizkigun 1596an eliza-agintarien erabakiei men eginez; harrezkero, **izen eta mota desberdinekin agertzen dira historian zehar**, San Frantziskoren erregelaren barruan beti ere; eta eraikuntzak berak hamaika aldakuntza, eraberritze eta hobekuntza izan zituen komentuan nahiz elizan, herri barruan erreferente garrantzitsua bilakatu zelarik.

la etengabe egon ziren belaunaldi anitzetako mojak **Santa Anan. Salbuespen bakar eta laburra 1794-1795 bitartean** jazo zen. Frantziako Iraultzaren hasieran, konbentzio-gerra zela eta, tropa frantsesak Hego Euskal Herrian sartzean, komentuetako mojek leku seguruagora ihes egin zuten. Santa Anakoek hasieran **Arabako Barriara** jo zuten eta geroago **Errioxako Brionesera**. Baina Basileako bakea sinatutakoan, berehala itzuli ziren Oñatira. XIX. eta XX. gizaldietako gatazka eta gerretan ez ziren herritik atera, eta halakoetan inguruko beste komentu batzuetako emakume erlijiosoek topatu zuten babesa eta aterpea Santa Anan.



Santa Anako komentua 1980 inguruan.

Komentua handituz eta zabalduz joan zen, urteak igaro ahala. Obrarik nagusienak, agian, **XVII. mendean** zehar burutu ziren. Orduan gauzatu zituzten **eliza berria, atari arkuduna eta eraikinaren beste alderdi batzuk**. Garai hartako lekukoa dugu oraindik ikus dezakegun erretaula nagusia, Juan Sagües, Martin Zatarain eta Domingo Zatarainen lan aipagarria. **Santa Anak** osatzen zuen etxe-multzo galantak, kostata eta kanpotik behintzat, **gorde zuen nolabait bere itxura historikoa**, duela ia berrogei urte, Oñatiko udalak bereganatu ondoren, mojen egoitza izatetik beste erabilera batzuetara pasatu zenean.

Azkenaldian, dakizuenez, **eliza hainbat zereginetarako areto bihurtu da**: urte batzuetan zinema-emanaldietarako ere baliatu baldin bazen ere, aspalditxoan antzerki, kontzertu edota hitzaldietarako erabiltzen da batik bat. Komentuari zegokion alderdia zeharo hustu zen barrutik eta lokal horietan **Txantxiku ikastolaren zenbait ikasgela atondu ziren**. Eta mojen ortu-sail zabaletan, berriz, **Zubikoa izeneko udal kiroldegia jaso zen**, gaur egun herritar askoren aisia-leku eta ariketa-esparru garantzitsuenetakoa delarik.

SAN MIGEL ERROTA

San Juan kalearen izaera luzaroan markatu zuen beste toki inportante bat **San Migel errota** izan genuen. Orain turismo-bulegoa aurkitzen den inguru horretan aritu zen lanean gizaldi askotan. **Jabeak Oñatiko jauntxoak ziren**, hots, **Gebaratarrak**,



Oñatiko udal artxiboa

San Migel errota egondako lekua XX. mendearen hasieran.

baina hauen patronatukoa zen San Migel parrokiarekin ere lotura estua eduki zuen. Hortik etorriko zitzaion izena, noski. **Jose Antonio Azpiazu** eta **Juan Madariagaren Oñatiko San Migel errota** (2006) lanak argibide ugari eskaintzen digu gai honetaz.

Parrokiako **abadeek hitzarmen moduko bat egina zuten euren patroiarekin**: elizari eman beharreko **hamarrenak** (gari, garagar, arto eta gainontzeko laboreen % 10a) nahiz **fruituen lehen emaitzak** (sagar, gaztaina, intxaur eta abarrenak) **kondearekin partekatu beharra** zeukaten; eta gainera, kondepekoak ziren nekazariak Linantzibar edo San Migel errotetara eraman behar izaten zituzten ehotzera euren labore-aleak. Bi baldintza horiek **ikaragarrizko diru-kopurua** ziurtatzen zien Gebaratarrei, eta bide batez parrokiako kabildoari, laurehun baserritik gora zituen Oñatiko herrian.

Errota horri eragiteko **ura San Martin azpiko presa batetik** desbideratzen zen eta ehundaka metro zituen **malatu baten bitartez** iristen zen San Juan kaleraino. San Migel errotak 1899an bere lanari utzi eta gero ere, kanalaren azpiegitura mantendu egin zen, XX. gizaldiaren hasieran leku horretan ipini zuten aroztegi bateko turbina mugiarazteko. Guk geuk ezagutu genituen hantxe **aroztegia eta zerrategia** gerra osteko hamarkada askotan. Malatu horren aztarnak ere bistan egon ziren Bidebarrieta aldeko etxe-poligono berria eraiki zen arte. Ur hori, gainera, beste premia batzuk asetzeko ere aprobetxatu zen: esaterako, ibilbide luze horretan zeuden **baratze ugariak erregatzeko**, hainbat labadero eta puxeta-harritan **arropak garbitzeko**, baita **bainu-etxe txiki batzuk jartzeko** ere.

Errotaren eraikina **Santa Anako mojek erosi zuten 1905ean**, eta hainbat arotz eta zerrariri alokatu zien XX. mendean zehar. Oñatiko **udalak** Santa Anako komentuari batera samar **bereganatu zuen 1983an**; 1997an **eraitsi egin zuten etxebizitzak egiteko**; eta unibertsitatara begira dagoen beheko solairuan **turismo-bulegoaren egoitza berria kokatu zen**. Bertan, aztarna arkeologiko batzuk errespetatu eta leku desberdinetatik elementuak ekarri, **errota bat berreraiki zen oñatiar eta turisten ikusgai**.

Hauetaz gain, San Juan kalearen inguruan badira, jakina, beste gauza eta xehetasun interesgarri asko. Horietako batzuk azaltzen hurrengo atalean saiatuko gaitzaizkizue.

 **ETXiAN**
Inmobiliaria

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu?

Tel.: 943 71 61 60
Mug.: 610 381 244
www.etxian.net
EtXian 

 **carpintería GARIBAI aroztegia**

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Itten bat

(*) Itten: arrastua, pistia

>> Kontu kontari

Berrogeita hamaseiko hotzaldixa

Orain dala hirurogeita hiru urte, 1956ko otsaillian hain justu be, hotzaldixak eta edurtiak Europa osua harrapau euen. Euskal Herrira otsaillaren 1ian sartu zan frantzi-iparra edo norte baltza izenekua eta hillabetiaren azken egunera arte iraun eben. Donostian hemeretzi izotz egun izan ziran hillabete osuan eta egun askotan termometruak ez eben zero gradutik igo. Pittinka-pittinka edurra pillaketan fan zan bazterretan eta arazo haundixak eragin zittuan han eta hemen: Urbasan esaterako, bi metroko altueria hartu eben.

Gizurra badirudi be, aurreko abenduan eta ilbaltzian udako girua egin eben. Arbolak puja barrixa bota eta sagarrak loria etara euen. Ilbaltz akaberan, baiña, eguraldixa txarketan hasi eta, otsaillaren bixan, Kandelaria egunian, izotz baltza egin eben. Eta handik aurrera, otsail osuan, hotz izugarrixa: zenbait lekutan, hemezortzi gradu zero azpittik. Ezbiharrak be izan ziran, gizon bat hotzak hil zan Iturriotz aldian (Aia). Teillatu askotan, berrogei egunian ez eben edurra kendu. Transporte guztia geldittuta, ganaduarendako jatekorik ez, ardirak-eta gosiak hiltten: bee! bee! Estuasun galantak danian! Negu ha, haxe bai gogorra, fan zan gizaldiko hotzena, bai, seguru!

Hona hemen *Basarri* bertsolarixak izoztia pasau ondoren jarritako bertsua

*Gabon jaietara iritsi ginen
uda kutsu eder baten
elastiko bat jartzeko ere
etzun gogorik ematen
aurten negurik ezkenduela
hor ari ziren esaten
ondo pentsatzen jarri ezker
a ze deskuido zeukaten!*



Horrelako izozterik etzan XVIII. mendetik hona ezaguketan. "Aspaldi izan ei zan beste negute izugarri bat. Gure arbasuak kontaitten euen ijituak amandria jan euen urtia izan zala ha". Hona hemen haren gaiñeko bertso hau:

*Milla zortzirehunian
izan zan ordia
hemen egin zuena
negua fuertia
horma beltzak egiñaz
luzaro nortia
gero berrogei
eguneko elurtia
ijituak amona
jan zuen urtia*




Izozte haundi hori Oñatira be aillegau zan, jakiña, eta ha ezagututakuak kontau doskueiñez, 1956ko otsaillian hillabete osuan edurra egin eben, aldiko gutxi, hotzak ez otsalako izten, eta gabetan egundoko izotza. Ilbaltza berotan pasau zan, baiña otsaillaren batian aldaketia etorri zan, frantzi-iparra joten hasi zan eta hillabete osuan iraun eben holaxe. Hil horretan egin eben tenperaturarik bajuena 17° C zero azpittik izan zan, eta Legazpin 20° C zero azpira be aillegau ziran. Martixa etorri zanian, hegoia jotzen hasi zan, eta, haren graziaz, izotzak poliki-poliki urtuaz fan ziran.

Urte hartan, antzigarrak hemengo piñu insignis guztiak erre zittuanian, Bixaingo Joxek berrogei idi-biaje egin zittuan Aloña azpiko Auntzerreka inguruko basuetatik Zakariasen (Aia) baserri onduan) zerraraifio. Egundian bi biaje egitten zittuan, bat goizian eta bestia arratsaldian. Garai hartan, bi idi pare be izan zittuan etxian. Olabarta auzuan baziran, izan, ididunak, asko gaiñera, baiña berari emun otsain lan hori. Berak dixuenez, orduan igartu ziran piñu harein orde zartu ziran barrixak, honezkero botateko moduan egongo dira. Laizeruak (pinus nigra edo laricio), arleziak (alerziak: Laris decidua, alerce europarra edo lárice)) eta maritimuak (pinus pinaster), ostera, etziran igartu, leku hotzetatik ekarritakuak dira eta.

Eskerrik asko, Bixain Urrutiko Joxe Inza eta Antoneneko Pako Idigoras barriemaillai.

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Kale Zaharra 1950eko hamarkadan

Antzeko argazkixa agertu geben aldizkari honetako sail honetantxe 1997ko ilbaltzian. Kale Zaharreko zati honek orain dala **Ahirurogei urte pasatxo eukan itxuria** erakusten eben. Baina ordukua behetik gora atarata eguen, Lizaur-Gomendiotarren etxe dotoretik; arkitektuenetik, guk esaten geben moduan. Horregatik, orainguan eskumakaldian agiri diran etxerik gehixenak etziran han ikusten. Fotografixa bixok, ba, alkarren osagarri dittugu. Eta burura lehenengo datorkiguna zera da: **kalia bera izanda be, zenbat gauza aldatu dan** bixen bittarte horretan; ezta alperrik gizaldi erdi baiño gehixago pasau.

Aldatu, **izena be aldatu xakon**. Lehenago be era askotara ezagutu zan Txakutuenetik Kurtzekoraiño tarte luze hau, errebista honetako beste sail batian asko ezuala esplikau geben lez. Gerra ostetxuan fotografixiaren beheko partian agiri dan etxe batian jaixo nintzianian, **Alzaa kalia** zan hau; 1897xan alkate famau baten omenez jarrittako izendapen horrek 1979ra arte iraun eben; orduan berreskuratu zan jatorrizko **Kale Zaharra** izen klasikua. Baiña eraikuntza, **zoru eta trafikuan be aldakuntza sakonak** egon dira harrezkero.

Trafikuarena bistakua da. Sasue haretan **kotxe eta kamioi gutxi** ibiltten ziran kalietan. Neskatilla-mutikuok ezkeben traba haundirik izaten zankarraketan edo futbolian jolasian jarduteko. Ondo genkixen zenbat transportista pasauko ziran egunian zihar: **Ifarra, Azkar, Basabe, Elorrixorako autobusa** eta beste bakarren bat. **Fabriketarako sarrera eta urteixera orduetan** igarten zan **mobimentua**: goizeko 8retan; eguerdiko 12ttan; bazkalosteko ordu bittan; eta arratsalde-illunkarako 6retan. **Fabrikante gehixenak oiñez** edo bizikletan egitten zittuain **lanerako fan-etorrixak**; motorrian banakiak; eta autuan ixa iñok bez. Zubillagarakuak eta Zerrajerakuak ebalten zittuain autobusak edo kamioi bankodunak.

Etxiari erreparaitten badostegu, zenbat **eretsi eta berriz jaso** diran konturatuko gara. Gehixentsuenak. Eskumakaldetik lehenengua (eskiñatxua bakarrik agiri da) **Lola Elorzak** eta bere neskamiak okupaitten euen; hurrengua be señoira horrena zan, baiña **Azkonitzarena** esaten xakon, San Pedroko baserri haretako Daniel han bizi zalako bere familiariarekin; ondoren **Paikorena** etorren, Garibai auzotik kaleratutako Jauregialtzo-Altzelaitarrena; gero, teillatu baten azpitan, **Erleneko** lehengusu biren **kale-baserrixak**: Alberto Galdos eta Balentin Elerena; imajinaziño apur batekin **itturrixa** be ikusiko dozue, **Kanpantxorako** igoerako kantoian.

Hortik beherakuak ondo bereizketia ezta erreza, **Sarrixeneko** etxetzarraren kantala izan ezik. Alde horretan be asko barriztau dira. Ezkerrekuen artian, berriz, denbora bateko **kuartela** nabarmenketan da, itturrixaren parian; azken-azkenian, berriz, **arboleda txikiñeko ezxixak**, tiluak, zutik egozen artian (oraintxe bota da azkena). Atentziñua emuten dauen beste kontu bat **kaliaren zorua** da: **adokiñez** estalitta erdixan; urarentzako **arekak** ertzetan; harlosazko **espalo** ederrak alde bixetan; eta, ezkeraldeko etxietaraiñoiko tartian, erreka-harriz moldautako **zirrindara** luze eta zabala. Aldatu da, bai, hamaika gogorapen ekarten doskun Kale Zaharra be.

62 urte, zugandik gertu, etxeko goxotasuna sortuz...

ZERKAOSTETA 3

TEL.: 943 71 10 11



centro hogar MUEBLES



ZIGARROLA 1

TEL.: 943 71 10 12

943 79 15 03

ARRASATE



grupo
amuebladora
mondragonesa

